E:		1. Garoa Angiozar 2. Unai Mendiburu 3. Txaber Altube
	F:	1. Itxaro Juaristi 2. Nagore Loiola 3. Garazi Lekunberri
		3. Lurdes Ondaro
G:		1. Aitor Bizkarra 2. Beñat Alonso 3. Xabier Olaskoaga

V. Bota bertso bat! lehiaketa

Herria:	Zumaia
Antolatzailea:	Zumaia bertsotegia
Mailak:	Bakarra
Irabazleak:	Xabier Dominguez "Piru"

XXXI. Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa: bertsopaperak

Herria:	Gipuzkoa	
Antolatzailea:	Gipuzkoako Ikastolen Elkarte	
Mailak:	A:	LH 3. eta 4.
	B:	LH 5. eta 6.
	D:	DBH Lehen zikloa
	E:	DBH 2. zikloa eta DBHO
Sartuak:	A:	Amaia Irure
	B:	1. Mikel Etcheberria
	D:	1. Paul Beitia
	E:	1. Maialen Akizu

XXV. Garriko bertsolari eguna

Herria:	Muxika (Ariatza)
Antolatzailea:	Garriko bertso-eskola
Mailak:	A maila: 12 urte arte B maila: 13-14 urte D maila: 15-18 urte
Sarituak:	A maila: 1. Ibai Abaunza 2. Leire Gomez B maila: 1. Irati Etxebarria 2. Julen Olega D maila: 1. Koldo Gezuraga 2. Eneko Aldana

XI. Getariako literatur lehiaketa

Herria:	Getaria
Antolatzailea:	Getariako udala
Mailak:	A. LH-ko 1. mailako haurrak B. LH-ko 2. mailako haurrak D. LH-ko 3. mailako haurrak E. LH-ko 4. mailako haurrak F. LH-ko 5. mailako haurrak G. LH-ko 6. mailako haurrak H. 12-14 arteko gaztetxoak I. 14-16 arteko gazteak J. 16 urtetik aurrerakoak
Saridunak:	A: hutsik B: hutsik D: hutsik E: Oihana Irigoien eta Magda Dandu "Uda" F: Leire San Miguel G: Unai Lorenzo "Gure herriko festak" H: urte bitartekoak: Haizea Lertxundi "Pentsamendu ilunen kartzela azken geltokia" I: hutsik J: hutsik

XXXII. Gipuzkoako Eskolarteko bertsopaper lehiaketa

Herria: Gipuzkoa
Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte
Mailak: A: LH 2. zikloa
B: LH 3. zikloa
D: DBH Lehen Zikloa
E: DBH 2. zikloa eta DBHO
Saridunak: A: Naroa Aranburu
B: Joane Aldalut
D: Irati Tolosa
E: Amaia Urbieto

XIV. Ibon Zabala bertsopaper lehiaketa

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Aitor Servier-Etchechuri "Eragin ezberdina"
2. Iraitz Mateo "Munduaren amaiera"

IX. Ipuin eta Bertso Sariaketa :

Herri bakoitzak bere mitologia. Euskal Herriak berea, Olentzero!

Herria: Segura
Antolatzailea: Elordi kultur elkarte
Mailak: A: 9-10 urte bitartekoak
B: 11-12 urte artekoak
Saridunak: A: Aipamenak: Anartz, Aitana eta Haizea
B: Kepa Galparsoro

IV. Iurre bertsopaper lehiaketa

Herria: Tolosa
Antolatzailea: Iurre Elkarte
Mailak: Bakarra
Saridunak: 1. Olaia Jauregi eta Aitor Vitoria
2. Garazi Otamendi eta Irune Gurrutxaga
3. Naroa Jauregi eta Ana Jauregi
4. Amaia Imaz eta Alaia Ugalde
5. Ane Oiartzabal eta Oihane Zinkunegi
6. Izaro Perurena eta Laida Mendiluze

IX. Iurretako literatur lehiaketa

Herria:	Iurreteta	
Antolatzailea:	Iurretako Herri biblioteca	
Mailak:	A:	LH-ko 5. eta 6. mailak
	B:	DBH-ko 1. eta 2. mailak
	D:	DBH-ko 3. eta 4. mailak
	E:	Batxilergoa
	F:	Helduak
Sartuak:	A maila:	Ane Derteano “Planetak”
	F maila:	Iñigo Legorburu “Mila pertsonaia pertsona bakarrean”

XIII. Jon Aizpuru saria

Herria:	Gasteiz		
Antolatzailea:	Jesus Obrero ikastetxea		
Mailak:	A:	LH 3. zikloa	
	B:	DBH	
Sartuak:	A:	1.	Uxue Garaialde
		2.	Aitor Armentia
		3.	Peru Amorrortu
	B:	1.	Maddalen Arrausi
		2.	Beñat Olano
		3.	Garazi Tena

II. Koipelustre kopla jarri sariketa

Herria:	Abadiño	
Antolatzailea:	Goigaikarri bertso-eskola	
Mailak:	A: 14 urte arte	
	B: 15-18 urte bitartekoak	
	D: Helduak	
Sartuak:	A:	1. Txaber Altube
		2. Ane Peñagarikano
		3. Bittor Altube
	B:	1. Aitor Etchechuri-Servier
		2. Aitor Bizkarra
	D:	1. Eñaut Uruburu
		2. Iñigo Legorburu

XXVII. Koldo Eleizalde literatur lehiaketa

- Herria: Bergara
Antolatzailea: Bergarako udala. Euskara batzordea
Mailak: A maila: 2001-02 urtekoak
B maila: 1997-98-99 urtekoak
D maila: 1996 edo aurretik
Saritutakoak: A: 1. Josu Elizburu, Danel Soto, Iñaki Mujika, Irati Olabarria, Elene Arruti eta Aaron Gabilondo: "Goazen hondartzara"
2. Ibon Muniategiandikoetxea "Nere bizitza Euskal Herrian"
B: 1. Iker eta Xabier Aldai: "Gure gustokoa"
D: 1. Nerea Madariaga: "Indarrez beteriko txinpartak"
2. Maddi Txintxurreta: "Borboiak"
2. Amaia Arana, Leire Martin, Maialen Belastegi: "Hegoalderantz"

XXIII. Koldo Mitxelena literatur saria

- Herria: Donostia
Antolatzailea: Donostiako euskararen udal patronatua
Mailak: B. LH bigarren zikloa
C. LH hirugarren zikloa
D. DBH lehen zikloa
E. DBH bigarren zikloa
F - LOGSE Batxilergoa eta Lanbide-heziketa
Sarituak: C: Ekain Arzallus "Txingurri ametsa"
D: Unai Azpiroz "Julen Serrano"
E: Ekain Arrieta "Adiskide bati"

XIX. Lasarte-Oriako bertsopaper lehiaketa

- Herria: Lasarte-Oria
Antolatzailea: Ttakun kultur elkarteko bertsogintza taldea
Mailak: A: Lehen hezkuntza
B: DBH
Sarituak: A maila: Landaberri: 1. Xuar Agirre
2. Nahia Arruti
Sasoeta-Zumaburu: 1. Yeray Mendibe
2. Diego Andreu
B maila: 1. Lieni Rekondo
2. Aitziber Mendiluze

XXI.. Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa

- Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi-Berri elkarte
Mailak: A: 13 urte artekoentzat
B: 14-18 urte bitartekoentzat
C: 1993an edo aurretik jaiotakoak
- Sarituak: A: 1. Ane Beloki
2. Joane Aldalur
3. Ander Goenaga
B: 1. Aitor Servier-Etchechuri "Larrun".
2. Maialen Akizu "Oihal zatiak besterik ez".
3. Maialen Akizu "Bidegorriko buelta".
C: 1. Ane Labaka "Zor diegu memoria".
2. Karnele Mitxelena "Lo kanta".
3. Iñigo Legorburu "Askatasunaren beldur".

XXX. Lexoti bertsopaper lehiaketa

- Herria: Oiartzun
Antolatzailea: Haurtzaro ikastola
Mailak: A: LH 3. zikloa
B: DBH
Sarituak: A. Lur Gaztelumendi
B. 1. Jokin Irastorza
2. Beñat Ibargoieta
3. Paul San Sebastian

XXIII. Loramendi literatura lehiaketa

- Herria: Aretxabaleta
Antolatzailea: Loramendi euskara elkarte
Mailak: A: LH 5 eta 6
B: DBH 1 eta 2
D: DBH 3 eta 4
- Sariak: A: 1. Magali Armendariz
2. Amaia Uribetxeberria
3. Rafael Dasilva
B: 1. Joanes Sarasua
2. Oihana Arana
3. Julen Agirregabiria
D: 1. Ixak Sarasua

XXVI. Nafarroko Eskolarteko bertsopaper lehiaketa

Herria:	Nafarroa
Antolatzailea:	Nafarroako Bertsozale Elkarte
Mailak:	A maila: LH 3. eta 4. B maila: LH 5. eta 6. D maila: DBH 1. eta 2. E maila: DBH 3. eta 4.
Sartuak:	A: 1. Lorena Perz 2. Ander Mujika 3. Amets Oteiza B.: 1. Oier Alzelai 2. Aiora Irastortza 3. Irati Puyo D.: 1. Julen Mailharin 2. Irati Barberena 3. Saioa Mateorena E. : 1. Mikel Lasarte 2. Sukil Etxenike 3. Martxel Intxausti

“Nire gorputza, nire erabakia” bertsopaper lehiaketa

Herria:	Sopela
Antolatzailea:	Medicus mundi
Maila:	Bakarra
Saridunak:	1.saria: Aitziber Onaindia "Hitz isilduak" 2.saria: Paule Ixiar Loizaga "Nire gorputza, nire erabakia" 3.saria / Aipamen berezia: Sopelako euskaltegia "Bederatzitakoak"

XXVIII. Okelar saria

Herria:	Mutriku
Antolatzailea:	Mutrikuko bertso-eskola
Mailak:	A. Gazteak B. Helduak
Sartuak:	B: 1. Amaia Agirre "Minbiziari biziminez" 2. Iñigo Legorburu "Hitzaren ekonomia"

XVIII. San Andres bertsopaper lehiaketa

Herria: Eibar
Antolatzailea: ... eta Kitto! Euskara taldea
Mailak: A: 16 urtera arte
B: 16 urtetik aurrera
Sartuak: A: 1. June Eguren
2. Iker Arginzoniz
B: 1. Eñaut Uruburu
2. Manu Goigiana

XIV. San Antontxu bertsopaper lehiaketa

Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sartuak: A: 1. Aitor Servier-Etchechuri
"Independentziarako soka".
2. Jone Alberdi "Haur lapurtua"
3. Maddi Sarasua "Tanta baten gogoeta"
B: 1. Karnele Mitxelena "Gezurra da"
2. Moises Enbeita "Patxiren estualditxoak"
3. Iñigo Legorburu "Bi bihotz"

XXV. Urretxu eta Zumarragako eskolarteko bertsopaper lehiaketa

Herria: Urretxu-Zumarraga
Antolatzailea: Urretxuko eta Zumarragako udalak
Mailak: A: LH-ko 5. eta 6. mailak
B: DBH-ko 1. eta 2. mailak
D: DBH-ko 3. eta 4. mailak
Sartuak: A: 1. Elene Alberdi
2. Oier Etxeberria
3. Ibon Barriga
B: 1. Garazi Agirrezabal
2. Paulo Albisua
3. Alaitz Estonba
D: 1. Maialen Akizu
2. Jon Mendizabal

XXI. Xabier Munibe bertsopaper lehiaketa

Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Indarlan guraso elkarte
Mailak: A maila: DHB lehen zikloa
B maila: DHB bigarren zikloa
Sartuak: A: 1. Jone Zabaleta "Nire itzala"
B: 1. Jon Gurrutxaga "Krisia"

XXIV. Zapirain anaiak bertsopaper lehiaketa

Herria: Erreterria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Ane Labaka "Lurretik mila metrora"
2. Aitor Albistur "Forastero"

IV. Zubeltzu bertsopaper lehiaketa

Herriak: Deba eta Itziar
Antolatzailea: Debako udaleko euskara zerbitzua eta Zuhatzatza kultur elkarte
Mailak: A: Lehen hezkuntza
B: DBH
D: Helduak
Sartuak: A: 1. June Sudupe "Ia guztien ustez"
2. Aloña Salegi: "Otzango"
3. Goretti Unanue "Gore"
B: 1. Julia Ron "Txanpi"
2. Ekaitz Zubemendi "Pele"
3. Itzale Laka "Lolita"
D: 1. Igor Larrañaga "Killarratxueta " eta
"Harri txintxarrak eta pota huts bat"
2. Karlos Larrañaga: "Lastur" eta "Arimaren isla"
3. Josune Arakistain: "Trikitixa"

BAT-BATEKO BERTSO HAUTATUAK

OIARTZUN (2012-01-08)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Egaña,
I. Elortza, J. Maia, A. Martin, X. Silveira eta
A. Sarriegi.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

“Elkartasunez topo egiteko” zioen kartelak. Giroan nabaritzen zen bezperan Bilbon izandako manifestazio erraldoia. Ohi bezala, erabat bete zen Elorsoro kiroldegia.

J. Maia-A. Sarriegi 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c374>

Gaia: Ziega berean zaudete. Gainera, denbora luzerako daukazue. Erabaki duzue zulo bat egitea ihes egiteko. Hilabete daramazue zuloa egiten; egun batean Aitoraritzen da, hurrengoan Jon, txandaka. Aitor, ohartuzaraazken asteotan, zuk uzten duzun tokian hasten zarela lanean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

A. Sarriegi

Aste batzuek pasa
ekin eta ekin
eta bion artean
zulotxo bat egin
begira jarri eta
harritzen naiz *en fin*
gehio ez zulatzea
pikatxoi horrekin. (bis)

J. Maia

Ai gaur Aitor hona ze
grazioso zatozen!
Ez zazula hitz egin
zuloan hain ozen!
Ez det aurrera egiten
zugatik hain zuzen
zabalerantz ari naiz
kabituz zaitezen. (bis)

A. Sarriegi

Nik ere zulatu ohi
det lokatz bustia
biok egiten degu
ahal degun izpia.
Zugatik ikusi behar
badegu eguzkia
lehenago iritsiko
zaigu amnistia. (bis)

J. Maia

Neuk'e gogoan daukat
amnistia bera
baina ezin det egin
zuloan aurrera
begiratzen ari naiz
nun dagon irteera
baina ez du inun jartzen
"Presoak kalera". (bis)

A. Sarriegi

Nahiz inorentzat ona
ez degun kartzela
kontua ikusita
dagoen bezela
eta gure zuloa
beti berdina dela
ia pentsa liteke
gustora zaudela. (bis)

J. Maia

Gai honetaz ikusi
ditut hamaika film
Clint Eastwood-ek badu bat
ta *Alcatrazekin*
gauza bera egiten
ari naiz oso fin
hark zuloa egiten zun
begiradarekin. (bis)

A. Sarriegi

Hemen egin leikenik
ez nuke esango
saiautz egin baitet
horrenbeste txango.
Filmak ikuste hori
dago oso ondo
Cadena perpetua
ez zan ba izango? (bis)

J. Maia

Hori horrela balitz
kezkatuko nintzen.
Aitor ez gaude hain gaizki
zulotik ibiltzen
gera gaitezen hemen
pixka bat bizitzen
askatasun bidean
gaudela sentitzen. (bis)

M. Lujanbio 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c49g>

Gaia: Arratsaldero irteten zara amona paseatzera. Aspaldi honetan ia-ia ez da zure izenarekin ere gogoratzen. Baina gaur, paseoan zoaztela, parke batera hurbildu eta eskutik helduta kolunpiora eraman zaitu. Kolunpioan eseri da bera, eta hasi zaizu “Bultza! Bultza!”.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Ximur-ximurra sumatu diot
esku ahurran epela
tiraka doa ta esaten dit
“Zatozela! Zatozela!”.
Kulunpioan hor eseri da
ez nuen usteko bela!
Bere munduan bizi da amona
ume bat balitz bezela
ta zeinek dio nerea baino
ederragoa ez dela? (bis)

Gure zaintzaile gure hezitzaile
berak behar zuen berez
orain artean gure gidari
bera izan da izatez
eta bizitza oso ederra da
batzutan bai ta beti ez
ta zeinek daki gure amonari
bere bi begi larriez
burua ihes joan zaion edo
berak egin duen ihes? (bis)

Gogorrena da seme-alabentzat
hala izan da gaurdaino.
Hala're bera ondo ikusten da
bere hitz bere *empeño*
ta auskalo nun ote dabilen
begiz erne buruz laino?
Kulunpioai bultzako diot
ez zendun usteko baino
ta denboraren kulunkan zoaz
zuk nahi duzun lekuraino. (bis)

GETARIA (2012-01-13)

*Bertsolariak: J. M. Irazu, A. Sarriegi,
B. Gaztelumendi, I. Apalategi, A. Martin eta
A. Rezola.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Getariako San Anton jaietan urtero egin ohi duten bertso-saioa. Saio ederra izan zen, eta bertsozaleek jarrera beroa erakutsi zuten.

*J. M. Irazu-A. Sarriegi-B. Gaztelumendi
I. Apalategi-A. Martin-A. Rezola
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c5bs>*

Gaia: Badakit ez dagoela beste gairik bazterretan, eta barkamena eskatuko dizuet gai hau aurkezteagatik, gainera San Antonak izanda. Jaiak hasi berri, eta nik krisiaz hitz egin behar. Bertso batean kantatu behar duzue krisi honek ekarri digun alderdi onen bat; baikor begiratuko diogu krisiari.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala I

J. M. Irazu

Krisi beltz honen alderdi onak
nola jo litezke begiz?
Zarzelako kontu ilunak
zeuden argitasun premiz
ze trapu zikin egin zituzten
gehienak jakiten gabiltz.
Hori argitara ez zan irtengo
krisirik izan ez balitz!

A. Sarriegi

Garai batean *barra libre* zen
maileguak eskatzeko
etxearekin batera oporrak
ta kotxea ekartzeko
peoi soldata izanagatik
biziz patroien antzeko.
Askori ondo etorri zaie
hankak lurrean jartzeko.

B. Gaztelumendi

Ni gaztea naiz ta ezin ditut
hankak eraman lurrera
baina orain zer edukiko det
lehen ez baneukan sobera?
Asteburua heldutakoan
azkenaldian ostera
tragotarako ez daukagu ta
mendirira joaten gera.

I. Apalategi

Urteetan lasai bizi izan gera
ze gabezi ta ze krisi?
Txinan ekoiztu gauza guztiak
Euskadin lasai erosi
ta hilabete bukaerara
orain ezin da iritsi.
Behingoagatik ohartu gera
hola ezin dala bizi!

A. Martin

Gutxitu dira bankuen nahiak
ta gutxitu banketeak
kapritxoetan heziak gara
eta ez dira merkeak.
Mesede asko ekarri ditu
nahiz ta eragin kalteak
karteran ez ziren ondo sartzen
bostehuneko billeteak.

A. Rezola

Krisi soinuak entzuten dira
noski bai hemen ta bai han
baino alderdi positibua
jarri bihar degu mahaian:
jendia gutaz akordatzan da
sagardotegi garaian
ta gero eta gehiago datoz
euren penak ito nahian.

J. M. Irazu-A. Martin 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c6e8>

Gaia: Denek esaten dute garai berriak bizi ditugula Euskal Herrian, eta hala izan bitez, garai berriak. Baina bada hitz bat, asko aipatzen ari dena azkenaldian, eta da memoria. Eta zuk, Alaia, bai, benetan uste duzu garrantzitsua dela memoria garatzea; zer gertatu den, zer gertatu zaigun, zer egin dugun, zer egin diguten gogoratzea ona dela. Aldiz, zuk, Irazu, uste duzu historian zehar ahanzturak, gauzak ahazteak mesede gehiago egin duela gogoratzeak baino.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

A. Martin

Gure gatazkak balio bat du
balio retroaktiboa
izan da odola izan malkoa
izan poza nahiz tiroa
gogoratzeak eragiten du
batzuetan bertigoa.
Memoria da behar duguna
memoria selektiboa.

J. M. Irazu

Behin borroka bat hasitakoa
herri zahar bati eusteko
eta bidean zenbat hildako
bateko eta besteko!
Garai berririk helduko bada
geure begiz ikusteko
oroitu ere ezin det egin
zenbat daukagun ahazteko!

A. Martin

Gure herriko negua nahiko
nuke jantzi udaberriz
zer oroitua zenbat oroitu
pentsatuaz hainbat aldiz.
Oroimen zaharrak jantzi ditzagun
egitasmo handi berriz
seme-alabek akats berdinak
egin ez ditzaten berriz.

J. M. Irazu

Seme-alabak harri berean
berriro ez erortzeko
zuk oroimenan alde eginda
nik arriskua galtzeko.
Burua putzu haundi bat degu
aspaldin trantze beltzeko
buruan leku asko behar du
herri berri bat sortzeko.

A. Martin

Gainditu gabe buruko toki
hori denez hilobia
sailka dezagun gure akatsa
mesede eta ongia.
Boteretsuen esku egoten
denez askotan zoria
gogoratuaz idatzi behar da
herri honen historia.

J. M. Irazu

Alde batera onartzen dizut
ondo dezu arrazoitu
geure barrena geure burua
dena ezin da herdoitu
baino iraganak ez lezakeenez
gure etorkizuna lohitu
beraz bakoitzak jakingo ahal du
zer ahaztu ta zer oroitu!



Bota Bertso Bat! lehiaketa. Zumaia.

Iturria: XDZ

MUNGIA (2012-01-15)

*Bertsolariak: S. Colina, On. Enbeita,
J.M. Irazu eta J. Maia.*

Gai-emailea: Iñaki Beitia “Arbildu”.

San Antontxutan urtero antolatzen dute jaialdia Mungian, azokaren bueltan. Eguerdian izan zen, plazan jarrita zeukaten karpan. Saioaren amaieran, XIV. San Antontxu Bertsopaper Lehiaketaren sari banaketa egin zuten.

S. Colina-On. Enbeita

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c7gk>

Gaia: Orain arte hemen ohitura izan da “*San Anton, besugos al montón*”. Zeozergatik, indabetara pasatu gara. Hor daude indaba lapikoak preparatzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

S. Colina

Krisi garaiak iritsi dira
hala diote behinepin
parrilla zaharrak itzali eta
eltze berriak irakin.
Lehen bixigua zegon aukeran
ta orain indabei ekin
baina hala're gu bizi gara
sakramentu guztiekin.

On. Enbeita

Behin honezkero sakramentuak
astiurritzen jataz
ezetz esanda be bardin gagoz
danok estu krisiagaz
lehen eguerdian zan bisigua
ta trago luzea gabaz
ta orain indabei begira gagoz
bisiguan begiakaz.

S. Colina

Beraz gabilta patrika hotza
ta muturra bero-bero
egunez paso eta gauetan
konbinatuen bezero.
Mudantza denak txarrak direnik
inork ez beza espero
indabak ere ederrak dira
ondo prestatu ezkerok.

On. Enbeita

Indabak egin leikez txorizo
eta guzti oliotsu
baina zetako ezkaratzean
ai horrenbeste esfortzu?
Egoeraren aldaketaren
ejemplo bat hor dekozu:
San Antoneri zegatik orain
deitzen jako San Antontxu?

S. Colina

Aizu Onintza krisiarekin
nerbiosa zaude zeharo.
Nere ustetan San Antontxuna
ez dago horren arraro
San Anton edota San Antontxu
berdin-berdina da klaro
santui gutxio erreparatu
ta bizipozai geahiago.

On. Enbeita

Nik bizipoza badaukat baina
giroa eskas aibala!
Begiratuta ni naz neska bat
galanta eta zabala
bai argi dago nik indabetan
krisirik ez daukadala
asuntoa da luzaro holan
jarraitu gura dodala.



Bertso Eguna 2012

Egilea: Galder Izagirre

Iturria: XDZ

DONOSTIA (2012-01-15)

Bertsolariak: B. Gaztelumendi, J. Martin, J. Labayen eta Arkaitz Oiartzabal “Xamoa”.

Gai-emailea: Haritz Casabal.

Munduaren amaiera izeneko bertso-saio musikatua. DOKAn izan zen, Donostiako Kafe Antzokian.

B-Gaztelumendi-J. Martin

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c8j0>

Gaia: Munduaren bukaerak harreman askoren amaiera ekarriko du. Bikote klasiko bat, ezkontzara arte birjin heldutakoak... Jonek esan dio Beñati: “Gauza berriak probatu nahi ditut”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Geldirik ezin naizela egon*

B. Gaztelumendi

Gure lehenengo aldia ohe
zuri batean izan zen
hogeitertan aritu gera
elkarri neurria hartzen.
Nola hasiko zera zu beste
batengana gerturatzen
bizi oso bat badaramagu
gauza berriak probatzen?

J. Martin

Baina horrekin liatu nahi dut
eta horiekin ere bai
banaka edo denak batera
denerako prest naiz lasai.
Ez zera Beñat nire fantasi
guztiak betetzeko gai
eta ez ditut desio denak
hilkutxara eraman nahi.

B. Gaztelumendi

Haseran dena zen gozamena
eta orain biziraupen
ez dakit gure biko nitxoan
lurperatu nahi zenukeen
hari ta honi begira zera
nahikoa harro jarduten
beste kontu bat degu ordea
beraiek nahi ote duten.

J. Martin

Lasai probatzen baldin badute
ez dira izango kexu
hau munduaren bukaera da
ez muga ez konpromezu
ta orgiaren kontuarekin
nahiko haserre zaude zu
baina jeloskor baldin bazaude
parte hartu dezakezu.

B. Gaztelumendi

Nazka ematen dit jarri beharrak
ni zure aldamenean
beste batekin ez dakit zertan
horren harro zaudenean
ez dakit nola joaten zeran
besten bila zuzenean
baina Beñat bat baino gehiago
dauzkat nire barrenean.

J. Martin

Baina ez dakit Beñat guztiak
gai al naizen asetzeko.
Denbora gutxi geratzen zaigu
gauza gehitxo probatzeko.
Orain artean portatu gara
apaizak baino hobeto
inpernu pixka't probatu behar da
zerua apreziatzeko.

B. Gaztelumendi

Uste genuen guk harreman hau
betirakoa genula
izarak hartu genitun eta
eraztun pare mardula
zeru ta infernu kontua behar
omen zenuen kalkula
baina beldur naiz beranduegi
apreziatuko dezula.



Bardoak 2012

Egilea: Nafarroako Bertsozale Elkarte (NBE)
Iturria: XDZ

J. Martin

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12c9lc>

Gaia: Berrogei minutu izan dituzu zure maitalea ikusteko. Berrogei minutu pasa eta guardiak esan dizu “*Lo siento. Se ha acabado el tiempo*”.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

J. Martin

Gutunen bidez izan zen
lehen gutunarekin justu
sortu zen amodioa
ta gero ez zen kamustu
biok harremanan alde
egin genuen apustu
eta geroztikan ez zait
aukera hura damutu
horren pertsona goxorik
ez dut inoiz ezagutu
ohe batean ibili
gera biak juntu-juntu
kristalaren beste aldeko
azal bero hau ikutu
eta eternitate bat
dira berrogei minutu.

Berriro ere etorri
gera kartzela hontara
maitatzen dudan pertsona
ikusteko bisitara
vis a visak nahiz ta eman
lehen aldian ikara
denborarekin lortu det
extrañoa den patxada.
Azkenerako biluztu
ta musuka hasi gara
zure barruan sarturik
luzatu da besarkada
eta izerdiz bustita
begira begietara
momentu hontan berdin zait
mundua bukatzen bada.

TOLOSA (2012-01-21)

*Bertsolariak: A. Sarriegi, A. Egaña, M. Lujanbio,
A. Arzallus, J. Maia eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Leporaino bete zen, beste behin, Tolosako Leidor aretoa, Txolarre irratien aldeko saioan.

A. Sarriegi 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cano>

Gaia: Zoriontsu bizi denak, Aitor, ez omen dauka kontsumitzeko premia handirik. Zoriontsu bizi denak gauza material oso gutxirekin aski omen du. Zein da zure zoriontasun maila?

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Gizarte honetan bada
nahiko inbidi ta bekaitz
beti gehiagoren bila
eta halere asekaitz.
Etxe haundixeago bat
erosi izan banu garaiz
moto bat erostea ere
burutik pasatu zait maiz
kosten etxe txikiren bat
esnatzeko kresal usaiz
edo mendian borda bat
bere belardi ta harkaitz...
Gauza asko falta zaizkit
baina zoriontsua naiz. (bis)

Iragarki ta argiak
kale luzeetan barrena
begitik sartzen zaizkigu
eta hori da txarrena
bateko eskeintza eta
besteko beherapena
sarri zentzua ez al da
rebajatan dagoena?
Horregatik esan nahi det
askotan esaten dena
zoriontsua ez dala
gauza asko dituen
baizik ta daukan harekin
konformatzen dakiena. (bis)

Guztiok gaude sartuak
kontsumismoaren sendan
gauza asko edukitzea
ona denaren leiendan.
Nik ere gauza gehiago
sartu nitzakeen zerrendan
baina inork ez dit esan
zoriona nun saltzen dan
familia, osasuna
edo lagunak tabernan
irriparre bat ahoan
bertso-saio bat agendan...
Ajola zaizkidan gauzak
ez dituzte saltzen dendan. (bis)

ZEANURI (2012-01-22)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, U. Iturriaga,
A. Arzallus, I. Elorza eta J. Maia.*

Gai-emailea: Eñaut Intxaurreaga.

Udaleko Kultura Batzordeak urtero antolatzen du jaialdia, urte sasoi honetan. Entzule asko elkartu zen herriko pilotalekuan.

M. Lujanbio-A. Arzallus-J. Maia 🎵
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cbq4>

Gaia: Famatuak dira Canovas hil zenean Txirritak botatako bertsoak.
Orain Canovas ez, baina Fraga hil da. Kantatu Fragari bertso bana.
Detaile bat ahaztu zait: lehen mikrofonorik gabe kantatzen zen⁰.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I*

M. Lujanbio

Bere mila ta piko urtekin
bazeukan nahiko grazi-ta
espainiar batzuk kontentu zeuzkan
euskaldun denak etsita
lehen Francoren jarraitzaile ta
gaur ez hortatik jetsita
azkenerako inpernutako
deabruarekin zita
galdu du bere bizia baino
askori galarazita.

J. Maia

Frankista eta lotsagabea
kriminal bat dohakabe
historiako izen beltzenen
kategoriaren pare.
Bera izan da frankismoaren
reziklajearen klabe
juizioa aspaldi galduta zeukan
gizonak baina hala're
lasai joan da merezi zuen
epaiketa izan gabe.

A. Arzallus

Manuel Fraga Iribarne zen
ama euskalduna zeharo
amak ez zion euskara eman
ta berak hala nahiago
pentsatzen zuen frantsesa zela
euskera baino gehiago.
Hori dela ta Fragak zioen
“Gure amaz harro nago”.
Zorionean bera joan da
euskera baino lehenago.



Ahoa Bete Hots jardunaldiak. Villabona.

*Egilea: Oihana Aranburu
Iturria: XDZ*

DONOSTIA (2012-01-28)

*Bertsolariak: J. Azpilla, I. Lazkano, A. Egaña,
B. Gaztelumendi, O. Barroso, A. Mendiluze,
U. Iturriaga, A. Karrika, S. Colina, M. Lujanbio,
A.M. Peñagarikano, A. Arzallus, O. Enbeita,
J. Soto, O. Bartra, N. Elustondo, A. Sarriegi,
M. Agirre, J. M. Irazu, A. Barandiaran, I. Viñaspre
eta M. Sarasua.*

Gai-emaileak: Laxaro Azkune, Joana Itzaina eta Unai Elizasu.

Eguerditik hasi zen bertso festa Donostian. Eguraldiak askorik laguntzen ez bazuen ere, eguerdian Victoria Eugeniako balkoitik abiatu ziren bertsolariak Donostiako kaleetara. Bretxako merkatuan eta Konstituzio plazan aritu ziren bertsotan Arrate Illaro, Sebastian Lizaso, Maddi Ane Txoperena, Xabier Sukia, Eneko Abasolo “Abarkas”, Alaia Martin eta Eneko Lazkoz, Iker Iriarteren aginduetara.

Arratsaldeko saioa Kursaalaren izan zen. Bertsozale Elkartearen 25. urteurrenaren harira antolatu zuten saioa, 25 zenbakiaren bueltan, hain zuzen ere. Domino fitxa handi batzuk jarri zituzten oholtzan, eta soka luze eta lodi bat ere bai.

B. Gaztelumendi-A. Egaña-I. Lazkano 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ccsg>

Gaia: Beñat Gaztelumendi, hogeita bost urte dituzu. Andoni Egaña, zuk bietan bete dituzu hogeita bost urte; hau da, berrogeita hamar urte dituzu. Imanol Lazkanok, berriz, hirurogeita hamabost urte ditu. Berrogeita hamar urteko soka da zuena. Zuetako bakoitzak bertsolaritzaren garai batzuk ezagutu ditu. Garai horretako bertso-saioak, garai horretako bertsolari bizimodua, bertsolari belaunaldiak; miresten dituzue elkarren belaunaldiak ere, beste bertsolaritza garai hauek.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala I*

B. Gaztelumendi

Bertsolaritzan belaunaldiek
eman digute oparo
baina ez gera ez adinaren
ta ez denboraren esklabo.
Belaunaldi ta bertsolariak
aurrera dira igaro
baina oraindik oholtza honetan
denontzat tokia dago.

A. Egaña

Beti ixkinak diran tokian
batek behar du tartea
bai adinez ta bai belaunaldiz
hortan izan det partea.
Ez nau harrotzen txapelak edo
noizbait BECera joatea
baizikan eta hauen artean
zubi-lana egitea.

I. Lazkano

Mende laurden ta mende Erdiko
bi hauek sasoi senduan
garrantzitsuak dirade biak
gaur bertsolari munduan.
Galdera hau da: moda-modako
bi izar hauen onduan
ajatatuko aiton zahar honek
zer kristo pintatzen duan.

B. Gaztelumendi

Pintatzen dezu zure tonoa
eta zure bertsokera
pozik joaten naiz ni're Imanol
gaur zure aldamenera
erreleboan gertatzen baita
dominoaren antzera
pieza batek huts egiten badu
guztiok erortzen gera.

A. Egaña

Horrexegatik aitortu det lehen
hortaz harrotzen naiz iya.
Ai Xebaxtianen arranke hura
eta Peñaren graziya!
Neronek eta nere lagunek
hor eman degu guziya
noizbait Beñati pasa genion
Imanoli ikasiya.

I. Lazkano

Egiya esan haurtzarotikan
maitatu degu bertsua
gero berari eskeini ere
ia-ia bizitz osua.
Guk egin degun lana izan da
xume bezain erosua
gaurko hauri eskura pasa
lehengoengandik jasua.

B. Gaztelumendi

Transmisioan egin zenuten
ta benetan lan txukuna
hala heldu da gureganaino
lehenago egin zenuna.
Orainaldian juntatzen gera
lehena ta etorkizuna
ta juxtu gauza hortatik dator
gure aberastasuna.

A. Egaña

Nahiz oraindik neu gaztea egon
ta aprobetxatzekua
tartean nago baina ez guncan
ez al da pentsatzekua?
Ia garaia heldu zait neri
atzean pausatzekua
ta Beñat zuri iritsi zaizu
aurrera pasatzekua.

I. Lazkano

Zueri esker ikusi degu
gure ametsa gauzatzen
gazte maiteok utz zaidazute
idea bat proposatzen:
bertsolaritza bertsolariak
bakarrik ez du osatzen
saia zaitezte herri jator hau
mimatu eta gozatzen.

B. Gaztelumendi

Hemen kontuak horren arraro
ez dira joaten hala're.
Aizu Andoni mila gaztetxe
parrez ipinia zaude
ta hori da ona danok jartzea
oholtza baten parez pare¹
denok aurrean jarri gaitezen
inor atzera joan gabe.

A. Egaña

Lazkanon garai haietan lagun
bertsoa ta irratia
nere jirako bertsolaiontzat
telebista tematia
eta Beñaten belaunaldia
ez al da Internet ia?
Hala're denok osatzen degu
bertsoaren barrutia.

I. Lazkano

Azken mezu hau eman nahi nuke
jendeak uler dezala:
enbor zaharrari geroago ta
zailago zaio ezpala
adinak eta nere zentzuak
agintzen didan bezala
herriz herriko nere jarduna
aurten bukatzen dedala.

(1) Azken hiru bertsoak kantatzeko mikrofono guztiak ilaran jarri zituzten. Ordura arte, Gaztelumendi eta Lazkano bi alboetan eta Egaña erdian, beste biak baino aurrexeago, aritu ziren.

U. Iturriaga

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cf18>

Gaia: Soka saltoan jostatzeko unea. Hori ez al da Unai bizitzaren metafora bat edo bizitza jolas bihurtzea?²

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I*

Jolas bat bada ez dut aurkitzen
bizitzan behintzat nirean
egina nago futbol partidak
ta gazteluak harean.
Esan didate “Hartu ezazu
zuk metafora idean”.
Bizitza hori baldin badugu
patua beti airean
batzuek beti erortzen gara
sokaren alde berean.

Baina hori bai izan dugunok
hautatzeko ohorea
egunotan gai bihurtu den bat
aipatu nahi dut ordea:
haur lapurtuek eman digute
bertsotarako oreka
soka ere hori ez ote dabil
jo goia eta jo behea?
Hautatzen ari balitz bezala
ama edo amaordea.

Jolas ta joko biak batera
ez al da bizitza bera?
Sokari eusten dion bikoa
ordea gaur zein ote da
gure maiteak gure jabeak
edo boterea bera?
Jauzi ta salto egin behar da
bizitza bizi topera
zango artean trabatuta ere
jaiki ta segi aurrera!

(2) Bi lagun zeuden oholtzan, sokari eragiten.

DONOSTIA (2012-01-28)

*Bertsolariak: P. Etxeberria, J. Zelaieta, I. Ibarra,
I. Zubeldia eta I. Mendiguren.*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Bertso Eguneako afalostea, Kursaalaren azpialdean. Bat-bateko saioaz gain, Zarauzko bertso-eskolakoek parodia bat egin zuten, *Bertsolari* dokumentala imitatuz, eta Eñaut Agirrek bertso sorta bat kantatu zuen musikarien laguntzarekin, bertso zaharrak eta ez hain zaharrak tartekatuz osaturikoa.

J. Zelaieta-P. Etxeberria 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cg3k>

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait*

J. Zelaieta

Goizean hasi ta atsaldean
giro ederrari eutsi
afalondoa bertsorik gabe
ere ezingo da utzi.
Bapo afaldu ta bertsotara
gu biak gara iritsi
maratoiaren azken esprina
hasiko al dugu Patxi?

P. Etxeberria

Afalondoko bertso-saioak
orain eman du hasera
aukera on bat eman digu ta
guk ezin bota atzera.
Alkartu eta goazemazute
umore on bat jartzera.
Bihotzez gabon opa dizugu
bihotzetik bihotzera.

J. Zelaieta

Bihotzetikan gaude kantari
hau ikusmira zabala!
Aitortu behar dut ohore haundi bat
bertzerikan hau ez dala.
bertso-saio bat egin behar dugu
bixi-bixi nola-hala
denak lurrera ez erortzeko
domino fitxak bezala.

P. Etxeberria

Gure hizketa ez da izaten
ez askotan seguruba
eskerrik asko badaukagula
lagunezko inguruba.
Zelaieta da gaztea eta
ni nago nahiko zahartuba
biyok alkarri lagundu ezkerro
altxako degu buruba.

J. Zelaieta

Gaztea deitu didazula ta
bihotzez eskerrik asko!
Hoita bortz urte ditu Elkartek
ta galdera zuretzako:
hoita bortz urte diote baina
ez ote dira exkaxko
plazarik plaza berrogeita hamar
daramatzan batentzako?

P. Etxeberria

Orain dirala hoita bost urte
guk alkarte bat egina
eta geroztik lanean ai da
lantalde haundi bat fina.
Handik honera atera degu
sekulako etekina.
Nahiago nuke urte askotan
goraka joango bagina!



Martxoan Bertsoa. Urretxu.

*Egilea: Zumarraga-Urretxuko Bertso-Eskola
Iturria: XDZ*

BILBO (2012-02-02)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, I. Elortza eta
M. Lujanbio.*

Ikus-entzunezkoak gauza askotarako baliatzen dira gaur egun, baita bertsolariei gaiak emateko ere. Bideoen bidez gaiak jarrita saio berezia egin zuten Bilboko Alhondigako Bastida aretoan. Unai Elizasuk eta Asier Altunak hainbat irudi grabatu zituzten Bilbon, eta haietako batzuk jarri zizkieten bertsolariei.

A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ch60>

Gaia: Irudietan emakume bat ageri da haur kotxearekin eta oinez ihes egiten dion beste haur batekin. Emakumea eskuko ordenagailuan ari da, txikiak alde egiten dion bitartean.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian*

Sinistezina zirudiena
ze irudi tipikoa!
Bizitza ia ez da izango
bizidunen neurrikoa.
Neska hor bere portatilean
sarean erdi itoa
ta bitartean nora ezean
dabil bere txikitoa.
Teknologia berri deituak
ze indar ze exitoa!
Gure bizitza bilakatu da
jadanik eurekikoa.
Wifia edo konexioa
baldin badauka nahikoa
ta ohartu gabe galtzen ari da
bere haurrarekikoa.

Lotura hori izan liteke
ohituraren ondorena
hortara ere ohitu ezker
ordea ze hondamena!
Berdin bazaigu nun degun haurra
nahiz ta ez eman baimena
berreskuratu al dezakegu
denborak kentzen duena?
Alperrik baita kezkatu ez ta
biharamoneko pena
orain ajolik eza den hori
liteke bihar problema.
Irudi horrek dakart burura
aitak esaten zuena:
denbora dela haur bati eman
dakiokkeen onena.

Grazia eman lezake horrek
baleike parrez hastera
beti delako parregarria
norbait larri ikustea.
Beretzat kasik nahiko lan bada
portatilari eustea
gehiegi berriz pantaila eta
haurra biak ikustea.
Erabaki du bat zaindu eta
bestea libre uztea.
Agian ez da erabaki ona
hori da nere ustea
baina opa diot lanak amaitu
ta haurra ondo haztea
ta ez ditzatela sekula galdu
sarean batak bestea.

MUTILOA (2012-02-17)

Bertsolariak: I. Zubeldia, A.M. Peñagarikano, I. Murua eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Lierniko Mujika jatetxean urtero egiten duten afalosteko saioa. Inauterietako ostiralean izaten da, eta urtero jende bertsua joan ohi da bertsoak entzutera.

S. Lizaso-A.M. Peñagarikano-I. Zubeldia-I. Murua 🎵
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ci8c>

Gaia: San Balentin izan da aste honetan, eta Xebastianek jaso ditu arrosak, ohar polit batekin, baina ez zaio asko gustatu. Bonboiak ere jaso ditu, eta haiek ere ez zaizkio gustatu, ez ditu probatu ere egin. Ez zegoen Xebastian oso harbera San Balentin egunean. Baina hiru bertso ere jaso ditu, zuen hiru bertso. Ea nola jasotzen ote dituzun.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

A.M. Peñagarikano

Hemen egunak bata
bestean atzetik
eta malkoak sarri
matrailan ertzetik.
Bertsolari lagunak
gu geran partetik
larrosak dakazkizut
nere baratzetik
ta eskeintzen dizkizut
bihotz-bihotzetik. (bis)

S. Lizaso

Horra larrosak jaso
kolorez erdi beltz
neretzako zirenik
ia ezin sinets
eta Peñak bidali
gezurra tamalez.
Ez dituzu biali
etxetik bihotzez
bihotzik ez daukazu
baratzik ere ez. (bis)

I. Zubeldia

Tori larrosatxo bat
eta bere txotxa
ni naiz Edurnezuri
zu zera ipotxa
zapalduko al didazu
koartoko koltxa?
Ni nauzu azeria
zu zera bildotsa
ai laztandu ahal banu
zure bizar motxa! (bis)

S. Lizaso

Norbaitek aldaba jo
etxeko atean
ta larrosa opari
jaso bat-batean
Ikerren partetikan
neuretzat kaltean.
Bizarra laztandu nahi
zuk derrepentean
lasztandu zazu baina
argazkin batean. (bis)

I. Murua

Ondo pasa zak moteil
Sebastian eguna!
Ez zak komeni eta
ez joan urruna.
Zaindu heure burua
ta zaindu kuttuna
osasuna're zaindu
ez izan tuntuna.
Gabiriko kixkur nauk
betiko laguna. (bis)

S. Lizaso

Ni ez nengon ohitua
egoera jasaten
ta detaile txikiak
dute erasaten.
Bi agur aski dira
ni poztu nazaten
ezin aspertu Iñaki
eskerrak esaten
ta luzaro segiok
laguna izaten! (bis)



Oñatiko bertso-saioa.

Iturria: XDZ

LEZO (2012-02-25)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano,
J. Maia eta A. Sarriegi.*

Gai-emailea: Aitor Salaberria.

Mainontzi bertso-eskolak antolaturiko saioa, Lezoko Gezala auditorioan.

A. Mendiluze-A.M. Peñagarikano

J. Maia-A. Sarriegi 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cjao>

Gaia: Zuek laurak Lezoko gazte kuadrilla bat zarete, eta ikusita Lezon gazteentzat dagoen ekipamendu falta, erabaki duzue marmoldegi zaharra okupatzea. Kontua da joan zaretela marmoldegia okupatzera, eta ertzainak etorriko diren beldurrez gaueko txandak antolatzea erabaki duzuela. Lau lagun zarete, baina laurok nortasun desberdina daukazue. Zu, Peña, mundujalea zara, beti nahi duzuna lortzen duzu: Allerrun apuntatzen zarela, eta taldeko pitxitxia zara; Morixkan apuntatzen zarela, hanka gehien altxatzen duzu, eta Mainontzin apuntatuta Maialeni txapela kentzeko modukoa zara. Zu, Mendiluze, sakona, traszendentala, mistikoa, filosofoa, misterioitsua eta iluna. Zu, Maia, zure historial klinikoa jartzen duen moduan, histeriko paranoikoa zara, haluzinazioak eta agresibitateak uztartzen dituzu. Eta zu, Sarriegi, despistatua, distraitu, autonomoa eta satelitea zara. Laurak elkartu zarete marmoldegian, eta dagoeneko ilundu du.

Neurria: Seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

A. Mendiluze

Lau planeta ipini
dira parez pare
arima berri bat da
marmoleian jabe
eta lasai kilkerrak
gure alde daude. (bis)

A. Sarriegi

Honuntza etortzeko
norbaitek esan dit.
Hara Aitor, Jon, Peña!
Nolatan hemendik?
Hemen ze ari naizen
ez dakit oraindik. (bis)

A.M. Peñagarikano

Ni musean ona naiz
horren txapeldunik
izan daiteke baina
ez det uste denik
hoita hamaika eskutik
egingo diet nik. (bis)

J. Maia

Hartu harriak eskutan
apunta ta tira!
Ertzainikan ez dator
ari naiz begira
ordun guardia zibilak
etorriko dira. (bis)

A. Mendiluze

Ai! Jon Jon harrikadak
ez du interesik
gaua heldu delako
ez al zaude pozik?
Ez da gerra egiteko
amesteko baizik. (bis)

A. Sarriegi

Ta ni beti bakarrik
nolatan nagoen
jode hemen ze jende
pila bertan gauden!
Bueno ta noiz hasten da
kontzertua hemen? (bis)

A.M. Peñagarikano

Ajedrezen ona naiz
ni ez naiz txepela
talibanek egina
ez ahaztu bela
ez ahaztu torre haundinak
erori zirela! (bis)

J. Maia

Ba nik ez det ikusten
hain ona itxura
kilker bat “Kri kri” ta “Kri”
zulora sartu da
ta kilker hori gutaz
deskojonatu da. (bis)

A. Mendiluze

Ai Jon begira Aitor
ejenplotzat tori
kontzertuaz galdezka
minik ez inori
kutsatu izpiritu
positibo hori. (bis)

A. Sarriegi

Lehen esan dizkidate
hiruzpalau izen
baino momentu hontan
hasi naiz ohartzen:
hiruotatik inor
ez det ezagutzen. (bis)

A.M. Peñagarikano

Bertsotan ere ona naiz
behar dan tokian
eta berdin da zutik
edo jarri aulkian
nik kantatuko diet
zortziko txikian. (bis)

J. Maia

Infiltratuak daude
ene ze arrisku!
Tipo hau hortik dabil
zortziko ta txistu
zu gaztea zeranik
ezin det sinistu. (bis)

A. Mendiluze

Ai Jon! Baina ikusi
Peñaren barrena
hori gaztea dauka
bueno izan zena
baina intentzioa da
balio duena. (bis)

A. Sarriegi

Lehenago entzun ditut
zure hitzen batzuk
superheroi itxura
haundia dezu zuk
komikiren batean
ikusi al zaitut? (bis)

A.M. Peñagarikano

Hemen guardia egitea
hori ez degu gaitz.
Gimnasioan ere
ibili ohi naiz maiz
marmola baino ere
gogorragoa naiz. (bis)

J. Maia

Jainkoak, Budak, Alak
gaitzala anpara!
Hau dena gezurra da
gezurra txorrada
marmoleria ere
ladrillozkoa da. (bis)



Osinalde saria. Gabiria.

Iturria XDZ

USURBIL (2012-03-08)

*Bertsolariak: U. Alberdi, A. Agirreazaldegia eta
O. Enbeita.*

Gai-emailea: Leire Iturrioz.

U. Alberdi-A. Agirreazaldegia 🎵
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ckd4>

Gaia: Nabari da Ainhua haurdun dagoela, eta hau aipatu gabe ez genuen geratu nahi. Izango dituzu hainbat zalantza, galdera, eta tripa hazten doan heinean horiek ere hazten joango dira, baina Uxue hemen daukagu. Uxue orain dela gutxi ama izan da, eta hau da unea berarekin eta gurekin zure zalantzak eta dudak partekatzeko.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Geldirik ezin naizela egon*

A. Agirreazaldegia

Pentsatu gendun “Haur bat nahi dugu”
jausi zitzaigun adurra
gero haurdun gelditu nintzen
ta hankek jo zuten lurra.
Beti ez nago oso seguru
ez det esango gezurra
emankorra izan ote naitekeen
hori da lehen beldurra.

U. Alberdi

Izango zara jausi ezean
beti beldur hoien mende
ahaztu ezkeru jartzen diguten
mila aholku ta lege.
Umearekin disfrutatzea
hartu zazu zure xede
gero ez dezu astirik izango
beldurra izateko ere!

A. Agirreazaldegi

Haurra izan ta beti jendea
ondoan balitz behinepin
baina ama asko ikusi eta
hain zaila zenik ez nekin.
Zure barrua nola moldatzen
ote den nahi nuke jakin
lagun guztiak euren martxan ta
zu pasiaran haurrakin.

U. Alberdi

Nahiz ta ohituta nengoen lehen
beti publikotasunean
orain sarritan murgildu ohi naiz
nere ta haurraren senean.
Orain bizitza bizi dezaket
egunean-egunean
gero ere hala egongo naiz ta
zuk deitu nahi duzunean.

A. Agirreazaldegi

Ta bikotean lehen maitatzeko
izaten zen ahalegina
ostiraleko antzerkia nahiz
zapatuko pasiera atsegina
ta orain dena haurrarentzako
aitak ta amak jakina
ta nola zaindu bikotea bada
hirugarrengo erpina?

U. Alberdi

Bizitzak badu bere denbora
fase bat da hau alafede!
Baditu bere kalteak eta
baditu nahiko mesede.
Dena umorez hartu behar da
bizi behar da alegre
dena txandaka egiten dugu
ia baita larrutan'e!

A. Agirreazaldegia

Jendea kezka ikus dezaket
nere beldurrei begira
guztia baikor saldu ohi degu
amatasunan harira
ilusioak eta beldurak
guztiak datoz neurrira
baina mamuak txikio dira
aipatzen baldin badira.

U. Alberdi

Bizi ohi ditut momentu onak
eta bada une txarrik
bizi izan dunak ondotxo daki
ez det esaten alperrik
baina zuk segi zure bidean
ta ez zazu egin negarrik
gero're Ainhoa izango zara
ta ez ama bat bakarrik.

MALLABIA (2012-03-09)

Bertsolariak: I. Urdangarin eta I. Zubeldia.

Gai-emailea: Beñat Ugartetxea.

Izargorri Elkartean izan zen bertso afaria. Bertso-aldi batzuk librean egin zituzten, eta beste batzuk Beñat Ugartetxeak jarritako gaien harira. Jendeak nahiko barre egin zuen.

I. Zubeldia

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12clfg>

Gaia: Zure emaztearen kuadrillako bat ezkonduko dela eta, emazteak despedida eguna eduki du. Gaur utzi zaitu lehenengoz alabarekin etxean, bakarrik. Zelan joan da eguna?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Neskak esan dit “Agur! Banoa”
ta nik aurpegi goibela
musu txiki bat eman dit eta
“Tori zuretzat pastela”.
Beatzi t’erditan ohian sartu det
hala’re ez da ergela
pentsatzen nuen “Gaurko gaua’re
ez dek joango motela!”.
Hala ere garbi utzi nahi nuen
aitatxo ona naizela. (bis)

Hamarretako negarrez zegon
preokupatu naiz orduan
usai pixka bat aditzen nion
gerriaren inguruan
pentsatzen nuen “Garai batean
nik ere izango nuan”.
Aldatzen hasi ta mugitzen zait
ia txerrien moduan
pañala ez dakit nun jarri dedan
ipurdian o buruan! (bis)

Azkenerako ipini diot
ta parre egin dit hara!
Pentsatzen nuen “Oraindik behintzat
ez daukan gaizki ganbara”.
Sehaskan sartu bertso txiki bat
astebururo erara.
Honenbestean bukatu gendun
biok larunbata gaba.
Ai zeinen ondo konpontzen geran
aitatxo eta alaba! (bis)

I. Urdangarin-I. Zubeldia-B. Ugartetxea 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cmhs>

Amaiera aldera gai-emailea zikiratu eta bera ere kantuan jarri zuten.
Hitzetik Hortzerako kamerak han ziren, eta haiek ere ez ziren libratu
bertsolarien zirietatik.

Neurria: Seiko txikia
Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

I. Urdangarin

Kamararen aurrean
kantatu degu fin
eta galderatxo bat
nahi dizuet egin:
doble kobratze al da
telebistarekin? (bis)

I. Zubeldia

Beraiei adarra joz
gaude gori-gori
lehenago izan dute
hainbeste histori
oain zeatik itzaldu da
argi gorri hori? (bis)

B. Ugartetxea

Beste fazetatxo bat
dugu deskubritu
zure bertso hau nahiz ta
ongi ez argitu
argi gorria itzali
ta eurak gorritu. (bis)

I. Urdangarin

Hitzetik Hortzerakin
nahi nuke nik sartu
gue amak disgustorik
ez dezan gaur hartu
zigarroakin nagon
bertsoak borratu. (bis)

I. Zubeldia

Ahal badin bada kaso
egin gaur Ikerri
zigarroak bertsoak
borratuaz sarri
ta zerbeza hustuta
dagoena jarri. (bis)

B. Ugartetxea

Nola bertso kantua
ez zen nere lana
ta zain egongo danez
nere haurren ama
beratziko puntuan
bota agur bana. (bis)

I. Urdangarin

Beatzikoa entzuteko
nolako gogo!
Zuek astin zazue
bittarten ahoa
bertsoa pentsatzera
kumunera noa. (bis)

I. Zubeldia

Iban komonen dago
nolako mutila!
Txixe egiteko're
ez zegon trankila
bi minutu pasa'itu
txilibitun bila. (bis)

B. Ugartetxea

Bi minutu pasata
guztioz begiko
desastrea gendula
hain da ageriko
jasua ez zuen honek
kumuna utziko! (bis)

I. Urdangarin

Bi minutu pasatan
hamaika umeldu
zuen ondoan behar det
gaurkoan umildu:
bi minutuan dudan
ze eskukin heldu. (bis)

I. Zubeldia

Bi minutuan beida
zegon parez pare
hala pentsatzen zuen
“Ein ote dit alde?”
azkenen etorri da
txixik egin gabe. (bis)

B. Ugartetxea

Bere instrumentua
neskatxentzat ginda
sendoa dela dion arren
txikia ta fin da
bi minutu pasa'itu
bilatu ezinda. (bis)

I. Urdangarin

Zuen kontu hoiekin
ez goaz inora
nik behera beidatzen nun
eta berak gora
txixa ein diat baina
ez zekiat nora! (bis)

I. Zubeldia

Higienea behar da
horrelakoetan
tantorik³ ez uzteko
komonaren bueltan
onena dek sartzea
puntea uretan. (bis)

(3) Tantarik.

ZESTOA (2012-03-16)

Bertsolariak: A. Barandiaran, I. Urdangarin, A. Salegi, J. Soto, A. Martin eta A. Rezola.

Gai-emailea: Aimar Etxeberria.

Zestoako Gazte Asanbladako kide batzuek antolaturiko saioa.
Gaztetxean izan zen. Entzule asko eta giro beroa.

A. Rezola-A. Martin

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12cnk8>

Gaia: Zuek biok hilerri batean egin duzue topo. Zu, Agin, GALEk
eraildako ETAkide baten senidea zara; zu, Alaia, ETAk
eraildako guardia zibil baten senidea.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Dama askoren engainagarri*

A. Rezola

Biyak tristura begitan eta
zimur asko aurpegian
ondo dakigu herri hontako
historiak nola dian.
Nahiz ta bi bide desberdin ziran
punta banatan agian
topo egiten degu Alaia
biyok destino berian.

A. Martin

Nahiz ta bizitzak izatez duen
heriotza gizalege
bizitza batzuk egoten dira
besteen eskuen mende.
Nahiz ta eduki nahi dudan nahiko
mendekurako botere
jada indarrrik ez zait geratzen
Alper-alperrik eskatu dizut
zuri laztan eta muxu
lehenengo zita egin genduen
zaude beldurti ta izu.
Oin sokorristak ikusi eta
ia-ia hartua dezu su
ni itotzea nahi zendun baina
aldrebes atera zaizu. (bis)

M. Lujanbio

Ito ez zera oraingoz ito
pasatu dezu trantzea
ta gure zita posiblea da
gaur hasi ta bukatzea.
Yate batean ein nahi bazendun
magnate baten antzea
alde earra zendun Bar Juantxon
bokadillo bat patzea! (bis)

S. Lizaso

Bokadilloak ez zun balio
hemen ez geunden bestela
barkatu baina nere asmoa
Maialen ez zen ustela
nik uste nuen gure ametsa
ondo aterako zela
biok dilindan han ibiltzea
biok geldirik geundela. (bis)



Xenpelar saria. Erretereria.

*Egilea: Xenpelar Bertso-eskola
Iturria: XDZ*

BERMEO (2012-09-13)

*Bertsolariak: A. Estiballes, A. Egaña, U. Alberdi
eta M. Amuriza.*

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

Jaietan urtero egiten duten jaialdia, aurren 38.a, Euskaraz berbetan taldeak antolatua. Ehunka lagun elkartu ziren bertsolarien lana jarraitze-
ra, herriko pilotalekuan.

U. Alberdi-M. Amuriza

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ea3s>

Gaia: Bermeen betidanik esan izan da Bermeoko emakumearen presentzia eta garrantzia beti izan dela herri honen joan-etorrian itzela edo sarritan erabakigarria. Adibide bat pasatu didate, gainera, esanez, kultur arloan, turismo eta informazioan, kiroldegia, euskara dinamizatzailea, ikastola, Izaro abesbatza, Bermeoko abesbatza, Kirol Patronatua, Eusko Alkartasuna, alkatea eta Lurgintzakoak ere denak direla emakumeen esku, haiek direla kudeatzaileak.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala I*

U. Alberdi

Hainbeste izen aipatu ditu
holako zerrenda baten
ez naiz kapaza ni errenkadan
hoiek guztiak esaten.
Harrotasuna nabaritzen da
nola emeak dauzkaten
baina alderantziz dugun herritan
ez da notizi izaten.

M. Amuriza

Kultur munduan eta euskaran
ein dozue lan galanta
ikastoletan, koruan edo
elkarteetan be aparta
nahiz eta ez dan bermiotarra
hautagai onena da ta
behin honezkero lehendakaria
baino ez jaku hemen falta!

U. Alberdi

Beraz Bermion andreena da
barkuko lema ta masta
andreentzako ez dira soilik
sukaldea ta sehaska.
Ikusten denez herri honetan
daukazuen arrakasta
Euskal Herrira zabaldu behar
da hemengo andreen kasta

M. Amuriza

Alderdi onak gehiago dira
seguruenik balantzan
kontu hauetan proportzioak
ibili ohi dira dantzan.
Andrak kanpoan baldin badabiz
zeozer dago zalantzan:
gizonezkoak ete dabizan
sukaldean eta plantxan

U. Alberdi

Galdera zuzen egin duzu ta
nik zalantza daukat klaro
zaharrak zaintzen izango dira
emakumeak luzaro
goi karguetan badira batzuk
ta horrekin pozik nago
baina halere izango dira
ikusezinak gehiago.

M. Amuriza

Goi karguetan omen dabilta
emakumezkoak trebe
bardintasuna ta beste hamaika
proiektu ditue xede.
Egia esan hoba leukie
oihartzun hori balebe
garrantzi bera edo gehijau dauka
isileko lanak ere.

U. Alberdi

Leku guztitan egon daitezen
andra zuri, hori, beltzak
Virginia Woolfek behin eskatu zun
gela txiki bat beretzat
baina ja txiki gelditu dira
gela estuaren ertzak
ta orain kalea ta plaza ere
nahi genituzke guretzat.

M. Amuriza

Gela txiki bat geuganatzea
izan genduen lehena
kaleak eta plazak bete nahi
genituzke guk hurrena
bandera moreik ez dago hemen
baina hori ez da problema
emakumeon presentzia da
banderarik ederrena.

A. Estiballes-U. Alberdi 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12eb68>

Gaia: Egoera berezi baten aurrean gaude. Uxue, parketik zoaz zure txakurrarekin, paseoan; aurretik korrika dator Arkaitz, ustekabeen txakurrak salto egin eta bragetan heldu dizu, eta han dago, Arkaitz geldi, txakurra geldi eta zu aldamenean tiraka.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Estiballes

Rottweiler baltz-baltza da
galdu dot oreka
salto bat egin eta
heldu daust brageta.
Kendu eiztazu hemendik
eta emon buelta
igual denboreagaz
gustau ingo jat ta. (bis)

U. Alberdi

Ez dit kasurik egin
nahiz nik deitu bizkor
orain artean ez du
erasotu inor
baina goseak dago
igual jo du gogor
txorixo muturren bat
sartu al duzu hor? (bis)

A. Estiballes

Ba bai zentimetroak
dauzka hogeita lau
txakurrak hartu aurretik
ere egin du “Guau”
baina hurrengo baten
hobeto amarrau
ze holan jotzen dotset²⁰ ta
gehiau estutzen dau. (bis)

U. Alberdi

Neurria entzun dut ta
sentitu naiz gaizki
hoita lau zentimetro
baina egiazki?
Bueno koxka hor ekin
kendu horri zazpi
ta hamazazpirekin
ez al duzu aski? (bis)

(20) Jotzeko keinua egin du.

A. Estiballes

Aski izan lei baina
hau da hau pastela!
Esaera batek be
ei dino horrela:
txakurrak ta jabeak
antzekoak direla
esperantza dot gero zeu
helduko zarela. (bis)

U. Alberdi

Nik nahi nuen muturra
horrantza zuzendu
baina kale erdian
ezin nabarmendu.
Ehiza txakurra da hau
ez zazu atzendu
ta ni lotsatzen banaiz
berak ehizatzen du. (bis)

A. Estiballes

Txakurra da altua
hau ez da bajua
“Grrr grrr” egiten hortxe
jabil ta gajua
jo ba gaur ehizatu dau
nire mondejua
ia noiz ehizatzen dauen
zure konejua. (bis)

U. Alberdi

Ondo igertzen zaizu
Bermioko kasta
zauria egin eta
hark zaurian hazka
baina berdetzen goaz
ja basta! Ja basta!
Txakurra ta untxia
etxera goaz ta. (bis)

AIZARNAZABAL (2012-09-22)

*Bertsolariak: S. Lizaso, A.M. Peñagarikano,
A. Egaña eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Joseba Etxeberria.

San Migel jaiak zirela-eta antolaturiko jaialdia. Frontoia leku hotza denez, azken bi urteotan elizan egin dute.

A.M. Peñagarikano 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ec8k>

Gaia: Zure bizitzan, Peña, lige asko eduki dituzu. Erregalo asko eman dizkizute. Kontatzerik ba al duzu edo jakiterik ba al dago?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza II*

Garai batean gaztea nintzan
eta barruak zer sua!
Neska gertuan sentitu ezker
hura zan paradisua!
Nere begiak dirdir eginez
eta luzatuz besua
erregalia nerekin daukat
bitxia eta goxua:
nola azaldu behar dizut zuri
nere lehenengo muxua? (bis)

Egia da bai izan nituen
 gaztetan lige ugari
 oraindik ere haiek oroitzuz
 hemen nago adi-adi
 ta oroitzeko zenbat buelta
 eman behar buruari!
 Behin eskutitz bat jaso nuen nik
 nere maitasun opari
 ta sinadurak hala zioen
 “Maite zaitut Anjel Mari”. (bis)

Ordun ligeak izango nitun
 gaur hamar bihar dozena
 izanez ere hori gaztetan
 da jokabide zuzena.
 Gogoratzen naiz erdi rubia
 nigandik gustatzen zena
 berarengandik jaso nuen nik
 erregalorik onena:
 nere etxean lo geratu da
 eta Jokin du izena. (bis)



Kopla txapelketa. Zarautz.

*Egilea: Hodei Esteban
 Iturria: XDZ*

IRURA (2012-09-30)

Bertsolariak: J. Maia, S. Colina, A. Martin eta A. Rezola.

Gai-emailea: Aitor Mendiluze.

Herriko jaietan ohikoa den jaialdia. Herritarrek gaiak proposatzeko aukera izaten dute, saioaren aurreko egunetan espresuki jartzen diren kaxetan.

J. Maia-S. Colina 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12edb0>

Gaia: Zenbaiten ustez, elkarrengandik inoiz baino gertuago gaude. Beste zenbaiten ustez, inoiz baino tarte handiagoa ateratzen digute. Bada kontrako noranzkoan joan beharko genukeela dioenik ere. Katalunia, Katalunia.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

S. Colina

Nahiz ta antzeko kasua izan
badago diferentzia
han urteetan ez baita egon
gatazka ta biolentzia.
Biak batera eskatu al leizken
hortxe datza esentzia
alde batetik erreskatea
eta independentzia.

J. Maia

Ikusten degu Katalunia
dabilela indarrean
ustekabeen ze olatua
olatu bat aparrean!
Beti besteak zer egiten dun
begiratu beharrean
geure burua azter dezagun
ispiluaren aurrean.

S. Colina

Eta orduan ikusten dira
Jon mitxelinak gerrian
ikusten dira pekatuak ta
gaudela trantze larrian.
Zure ahotik entzun nahi nuke
zerbait dakizun neurrian
ai bustiko den Guardiola bat
ba al da Euskal Herrian?

J. Maia

Guardiolarik ez dago hemen
independentista dena
baina badago beste jende bat
badaukana euskal sena.
Igual hobeto joango litzake
konparaketen problema
Urkulluk ere esango balu
Masek esaten duena.

S. Colina

Herri honetan zein Katalunian
ez dago soberan hitzik
nahiz ta askotan ez den ikusten
gerora argi zipitzik.
Urkulluk triste jartzen nau baina
Masek ez nau jartzen pozik
esandakoak ez du balio
egiten dutenak baizik.

J. Maia

Baina hala're ilusioa
sortu liteke hitzetik
eta gainera jarri behar da
hitza guztian gainetik.
Politikoak zer esaten dun
ez du hainbeste inportik
herritarrak joan behar genuke
politikoen aurretik.

S. Colina

Baina herriak politikoei
zuzendu ohi die soa
politikoa tarteko bada
geroa beti lausoa.
Ez dakit ondo emango duten
independentzi pausoa
baina hobeto tratatu dute
hizkuntzaren arazoa.

J. Maia

Hortan arrazoi ematen dizut
hango arrazoiien sortan
baina jiraka goaz bi herri
amets haundien errotan
bi pintza gera bi nazioan
bi pintza zintzilik soka
eta bi pintza hoien artean
España dago kolokan.

A. Martin

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12eedc>

Gaia: Aste honetan notizia asko begiratzen aritu naiz propio, nik ere gai batzuk proposatzeko, eta pare batek zer pentsatua eman didate. Batetik, bada gimnasten entrenatzaile bat, goi mailakoa, oso txalotua, laudatua izan dena, eta bat-batean deabru bihurtu da. Zinemaldiko aktore batek ere esaten zuen ez zegoela ohituta, urte asko daramatzala, baina lehenengo aldia dela zinemaldi batera gonbidatzen dutena eta sari bat ematen diotena eta pixka bat harrituta zegoela. Arrakasta. Arrakasta omen da helburua, arrakasta izaten da ametsa, baina hauskorra ere bada, arriskutsua zenbaitetan. Arrakasta.

Neurria: Hamalauko berdina 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Bertso bat bota ta lehen
txaloaren segundua
da haize ezti goxo bat
oniritziz leundua.
Entzulearen bihotza
utziz gero bigundua
sentitzen dugu eskutan
hartzen dugula mundua
baino ez da antzekoa
behekaldeko ingurua
hargatik hotza mantendu
behar da gure burua
ondorio izan dadin
ta ez gure helburua. (bis)

Gero fokoen argia
dagonean apartean
igual ez gara sentitzen
oholtzan bezala pakean.
Jendeak ze eragina
duen gure aldartean
nork sinetsi beharrean
norberak duen artean
baino nere buruari
zertan hasi atakean?
Arrakasta gozatu nahiz
arrakasta jasatean
gozatzen jakin behar da
irauten duen artean. (bis)

Nola eskertu ohi dugun
saio baten deiadarra
autoestima txute bat
euforia ta indarra
agenda hutsa badugu
bajualdia negarra
estremista izatea
izatez delako txarra.
Norberari eutsi eta
euts dezagun irrifarra
eta arrakasta ahaztu
nahiz izan bere beharra
arrakasta aparra da
baina bakarrik aparra. (bis)

IURRETA (2012-10-06)

*Bertsolariak: A. Egaña, J. Maia, A. Arzallus,
M. Lujanbio, U. Iturriaga eta M. Amuriza.*

Gai-emailea: Igor Elortza.

San Migel jaietan ohikoa den jaialdia, uda giroko jaialdietan azkena.
Gaezan izan zen, pilotalekuan.

M. Amuriza-A. Arzallus 🎵
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12effo>

Gaia: Miren, aurtengo udan Etioipian ibili zara. Zu, berriz, Amets, orain
lau-bost urte Bolivian ibili zinen, besteak beste. Jakin gura nuke
zer pentsamendu ibiltzen duzuen hemen “Krisia” berba entzuten
duzuenean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*

A. Arzallus

Munduko zenbat bazter gordetan
ez edari ta ez jangai!
Eta bizitza kostata baina
aurrerantza eraman nahi
eta haiekin konparatuta
nik sarri pentsatzen dut ai!
Gu aberatsak garela baina
oso behartsu ere bai.

M. Amuriza

Ez da erraza etxetik kanpo
zer dagoen jakitea
nahiko zeregin ta buruhaustez
dago gure lur maitea.
Krisia ez da hartu beharra
jateko nahiko merkea
krisia baita zer janik ere
ia-ia ez eukitea.

A. Arzallus

Igual krisia hori bera da
goizeroko jan eskea
ta zoritxarrez horrela dabiltz
bai bata ta bai bestea
baina badago beste krisi bat
hala da nere ustea:
zenbat daukazu ez jakin eta
besteak ez ikustea.

M. Amuriza

Zenbat daukagu apreziatzen
ez dogu ikusi tamalez
ta bat-batean ekonomia
guztia dogu aldrebes.
Etiopian ez da dirurik
eta zer janik ere ez
eta halan be ia inortxo
ez zan ikusten negarrez.

A. Arzallus

Pentsa ezazu zer alde dagon
iparraldetik hegora
hura da gure lehengaiei lur
dirua eta denbora
hura da gure basura haundi
dena doa han zulora
baina bizitza berri bat ere
handikan etorriko da.

M. Amuriza

Hona etorri ta badirudi
dana dagoela txarto
ez da ba izango orain artean
gu egon garela bapo.
Kalkulau zenbat diru dozu
zuek gaur parrandarako
urte osoa litzake hori
han famili batentzako.

A. Arzallus

Errexena da telebistara
jarri ta sofán eseri
baina hura da gure aldeko
aberats denen miseri
hori da gure bizitza honen
min ematen duen egi
baina arrazoirik ez die kentzen
gure eskakizuneri.

M. Amuriza

Asko ta askori kendu deusiez
makina bat diru sari
eta gatxa da baikortasunez
begiratzea danari.
Pentsau ez arren esku artean
daukaguz gauza ugari
daukazuena apreziatu
ta lagundu ez daukanari.

J. Maia 

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12egi4>

Gaia: Transzendentziarako gaitasunik duen bertsolaririk badago, bat behintzat zu zara; unea eta lekua gainditzeko gaitasuna. Kontua da atzo irakurri nuela Nestor Basterretxearen esaldi bat, eta pentsakor utzi nauela bertsolari moduan. Hauxe da esaldia: “Jarrera serioa da euskalduna. Denboran iraun dezaten eginiko obrak dira euskaldunarenak, lekuko izateko eginikoak”.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Jarrera serioa da
nunbait euskaldunarena
ni ados nago horrekin
apuntatzen naiz lehena
betirako irauteko
da egiten degun dena
hori igual aldatu da
ja ez da lehenago zena.
Urteetan jasan degu
zapalkuntza, jazarpena
ta menderik mende goaz
beti bilatuz hurrena
gure hizkuntzak bermatzen du
herri honen iraupena. (bis)

Aro zailak pasa dira
batzutan ginen lau katu
batzuk bidean gelditu
ta beste batzuk nekatu
baina pausoak emanik
eta jarreran ausartu
beste mende berri baten
bizirikan gera sartu.
Lehengo ikono zaharrak
betiko dira zahartu
orain izar berri batzuk
behar ditugu bilatu
bizirik mantendu nahiak
justu horrek bizi gaitu. (bis)

Adibidez hemen gaude
zuekin sei bertsolari
laister hiltzen den bertso bat
ari naiz orain kantari.
Dena ez da harrizkoa
jarri gaitezela adi
sentimentua zer den ba
airean degu nabari.
“Sortuko dira berriak”
Xenpelarrek zion hori
baita irudi berriak
ta amets berri ugari.
Jarri gaitezen begira
jaioko den loreari. (bis)

LEKUNBERRI (2012-10-12)

*Bertsolariak: O. Estanga, U. Alberdi, I. Zubeldia
eta A. Martin.*

Gai-emailea: Arkaitz Goikoetxea.

Iaz hasi ziren bertso-eskolakoak Lekunberriko jaietan bertso-jaialdia antolatzen, eta aurtan segida eman diote. Laurehun lagunetik gora elkartu ziren herriko plazan. Saio polita atera zen.

U. Alberdi-I. Zubeldia

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ehkg>

Gaia: Bi hauek gurasoak dira, eta aurtan hasi dituzte haurrak eskolan.
Hortxe joaten dira biak, bakoitza bere haurrari eskutik helduta.
Ume txikiak dira eta gela barruraino laguntzen dituzte, eta atea
ixten denean, pasillotik negar hotsak entzuten dira.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

U. Alberdi

Orain artean dena izan da
bularra eta sabela
aita ta aman jolasak eta
etxe barruko epela.
Negar hotsekin betetzen denez
ikastola hontako gela
pentsatu nahi dut malko guztiak
beharrezkoak direla.

I. Zubeldia

Goizean jeiki eta jazten det
beti guapa ta apaina
lehendabiziko biberoiari
hartzen diogu tamaina
eskolan sartu, atea itxi
zenbat negar zenbat maina!
Haundinak aina indar daukate
txikitxoak dira baina.

U. Alberdi

Gelan sartuta egoten dira
bai uda ta bai neguan
patio baten buelta-bueltaka
dauden presoan moduan
jolasa eta aire librea
ahaztuz lehen segunduan
ikasteko beste eraren bat
egon behar da munduan.

I. Zubeldia

Esaten diot “Ba al dakizu
klaseko guapa zarela?”
esaten diot “Ba al dakizu
gelan ederki zaudela?”.
Atea itxi ta botatzen dit
begirada bat itzela
ta burumakur aldegin behar
huts egin banu bezela.

U. Alberdi

Nik aitortzen dut zalantzak dauzkat
ta bihotza bi zatitan
entrenatzen da fisikan eta
antzera matematikan
entrenatzen da estrategian
ta lanerako teknikan
inoiz ez dezan desobeditu
mundua dugun fabrikan.

I. Zubeldia

Zenbat guraso sortua danez
hamaika negar aitzeko
ta ze gogoia ematen digun
lepotik gogor heltzeko.
Nahiz ta klasean gelditzen diren
danak kopeta beltzeko
orain negarra beharrezko da
gero parrez bizitzeko.

U. Alberdi

Nik sentitzen dut, ez nago ados
ez dut pentsatzen horrela.
Nahiago nuke segi dezala
sorgin-sorgin gaur bezela
baina gu ere atera ginen
utziaz klasea, gela
konfiantza dut beren bidea
eiten jakingo dutela.

I. Zubeldia

Munduan dauden ume goseek
nolako negar zarata!
Ta gu gabiltza maina batzukin
jiraka eta bueltaka.
Klasen utzita etxera noa
gurea ere da marka
lasai nijoa badakit eta
ezer ez zaiola falta.

DURANGO (2012-10-19)

*Bertsolariak: J. Maia, I. Elortza, M. Lujanbio eta
M. Amuriza.*

Gai-emailea: Unai Iturriaga.

San Fausto jaietan ohikoa den jaialdia. San Agustin kultur gunean izan zen, ostiral gauarekin.

I. Elortza-M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12eims>

Gaia: Aste honetan jakin dugu Giza Eskubideen Estrasburgoko Auzitegiak Espainiako erreinua zigortu duela Martxelo Otamendiri 20.000 euroko kalte-ordain bat ematera, eta beste 4.000 euro kostuak ordaintzeko, berak bere garaian Egunkariaren itxieragatik ipinitako tortura salaketa behar zen moduan ez ikertzeagatik. Zuk ere, Igor, zure kasua pasatu zenean, duela urte batzuk, ipini zenuen salaketa bat, eta salaketa hori hor dabil bide burokratikoetan zehar, Estrasburgora bidean. Zu ere Maialen torturatua izan zinen, eta hala ere salaketarik ez ipintzea erabaki zenuen. Zer etorri zaizue burura aste honetan Estrasburgoko auzitegiaren berri hau jakitean?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

I. Elortza

Bost egun harek gogoratuta
ondino minez azala
nahiz ta esperantza galduta neukan
denpora pasatu ahala
Martxelorena jakinda jakin
arren itxoin beharko dala
ein eustiena egia zala
jenteak jakin daiala.

M. Lujanbio

Nik bere hortan utzi nuen ta
ez nabil zure gisara
Martxelorena da aspaldiko
lehen argi begirada
ta Espainia zigortu dute
notizia on bat hara
baina hogeta lau mila euroena
ja burla egitea da.

I. Elortza

Mina dirutan ordaintze hori
burla bat dala badakit
baina epai bat gura neuke nik
esango deusut zergatik:
nere minaitik zeure minaitik
nigatik eta zeugatik
eta baita be kontatzerik be
eukiko ez dabenengaitik.

M. Lujanbio

Nik aitortzen det barruan hartu
nuela poz bat itzela
baino bigarren irakurketa
izan liteke horrela:
hara tortura salaketa bat
konpondu behar bezela
esan nahiko du beste guziak
gezurrezkoak direla.

I. Elortza

Gezurrezkoak diren besteak
dana dan simulakroa
boteretsuak gainetik dagoz
ta da erdi teatroa
baina apurka kontauko dogu
guri pasatutakoa
anitza da ta herri honek daukan
minaren errelatoa.

M. Lujanbio

Politikoen zuriketako
ez ahal da behintzat izango!
Salaketa bat konpondu dela
ta ez daudela gehiago.
Nik oraindik'e minduta dauzkat
nere errai, beso, zango...
Ahaztu ez ditut egingo baino
aurrerako pronto nago.



Durangoko saioa.

Egilea: Plateruena Kafe Antzokia

Iturria: XDZ

ERMUA (2012-11-02)

*Bertsolariak: B. Ugartetxea, S. Colina, I. Elortza,
U. Alberdi, M. Lujanbio eta A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Euskal Birusa elkarateak urtero antolatzen du bertso-jaialdia urte sasoi honetan, San Martin azokaren bueltan. Gauean izan zen, eta berrehun lagun inguru elkartu ziren antzoki berrian.

S. Colina-I. Elortza 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ejp8>

Gaia: Alfa da Eibarko enpresa bat, orain kinka larrian dagoena. Zazpiehun-zortziehun langile daude kaleratzeko arriskuan, eta horien artean ermuar asko. Zuek zarete langile horietako bi, eta atzoko egunez kokatuko ditugu gure buruak; izan ere, partida izan zen Ipuruan, Eibar eta Athleticen artean. Zuek hor zaudete pankarta baten atzean, Ipuruaren atarian, partida hasieran, eta ikusi duzue Athleticen autobusa etortzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hirurogeita beatzi urte*

S. Colina

Ipuruaren atean gaude
gu gure pankartarekin
besterik ez da irtenbideai
nahi geniolako ekin.
Llorente eta Muniain pasa
dira euren poltsarekin
eta *kabroiek* ez digute ba
begiratu ere egin.

I. Elortza

Autobusean doazenena
bizitza ederra omen
geuk ere hoixe amesten gendun
nagusi egin baino lehen.
Llorente eta Muniainekin
Susaeta be hor zegoen
eskolan geugaz hasi zen eta
begiratu nun dagoen.

S. Colina

Hemen urteak pasatu ahala
hartu ohi denez nibela
Markel ari da hoberenekin
gu hemen gerlarik gerla.
Puto kasorik ez dute egiten
lehen esan dudan bezela
ta okerrrena da egun osoan
eurei begira gaudela.

I. Elortza

Partiduaren aurretik emon
gura guk Alfaren parte
geure aurretik pasatu dira
herrikide zein alkate
oihu egiteko ez dot indarrik
zelan deitu ba nazkante?
Geuk ere berdin egiten gendun
ointxe urtebetera arte.

S. Colina

Baina estutzen ari ginela
pankarta edo kartela
aurrean Bielsa gelditu zaigu
ezin zitekeen bestela
ta esan digu “Benga *karajo!*
Eutsi goiari *kauenla!*”
Antzematen da bera're laister
parora joango dela.

I. Elortza

Bere ejenpluaz hartu dogu guk
indar eta abildade
partidu honetan Alfaren barri
egongo da bai halan be
Athletic gola sartuta biok
pankartagaz parez pare
baina duda bat etorri jata:
golik sartuko ete dabe?

S. Colina

Gu pankartaren atzean gaude
berriketan hitz eta pitz
ta bitartean gure aurretik
pasa dira izen anitz.
Golik ez dute sartuko edo
sartuko dituzte berriz
nahiago nuke gurea ere
enpate izango balitz!

I. Elortza

Nik ez dakit ba enpaterako
ba ete dogun nibela
patroiak dino geroago ta
beherago goazela.
Hau paradoja nire esperantza
futbolean dagoela:
badaezpada zapaturako
eginda daukat kiniela.

U. Alberdi 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ekrk>

Gaia: Begira zer sagar ederra. Hau omen da suge batek Ebari eman
zion sagarra, hau omen da Ebak jan zuen sagarra, hau omen da
Ebak Adani eman zion sagarra, baina ondo ukitu, usaindu, eta
azkenean gezurrezkoa da.²¹

(21) Sagarra eskuan zuela jarri du gaia Josu Goikoetxeak, eta gaia jartzen amaitzean U. Alberdiri eman dio.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Jadanik hautsak jana da
etxeko Biblia zaharra
paradisuko kontua
zuhaitza eta belarra
ta Eba Adan tentatzen
zelako neska kaxkarra!
Gizajoa tentaldian
eroriko zen baldarra.
Baina nik pentsatu nahi dut
bada aldatzeko beharra
badaukagula nahi dugun
eran joateko indarra
nahi dugunean jateko
bekatuaren sagarra. (bis)

Moral itxi bat izan da
kristau askoren zutabe
emeak kateez lotu
izan dituna goi ta behe
etxera zokoratuak
nahiz ta sarritan xuabe
behin bekatu bat eginda
plaza denetatik alde.
Garaiak aldatu dira
ta ez da izango debalde
batere errurik eta
penitentziarik gabe
norbera izan dadila
norbere ekintzen jabe. (bis)

Libre izan nahi dut sagar hau
nahi dudanean jateko
libre izan nahi dut sugea
mihi puntaz tentatzeko
libre Adanekin edo
Ebarekin ligatzeko
libre zuhaitzera igo
ta handik begiratzeko
libre lurrera jeitsi ta
hankak lurrean jartzeko
libre izan amesteko
jolasteko gozatzeko.
Ez dut gogorik inori
azalpenik emateko. (bis)

BAIONA (2012-11-10)

Iparraldeko txapeldunaren agurra

A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12elu0>

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Trumioia ortzi beltzean hoska*

Hitza da gure joko partzela
edo uste dut lehen hala zela
orain zonbaiti hitz egitea
bihurtu zaio kartzela. (bis)
Beharrik gure bertsu eskoletan
berrehun haur bazaretela
jar ezazue txapela
ta erakutsi ez dakitener
hitza jostatzeko dela. (bis)

SARA (2012-11-17)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano,
M.A. Txoperena eta O. Barroso.*

Gai-jartzailea: Sarako Bertsuzale Taldea
Gai-emailea: Ellande Alfaro.

Sarako ikastolak eta Sarako gaztetxeak urtero antolatzen duten bertso afaria. Lurberri gelan izan zen eta giro bikaina sortu zen. Bertso afariaren aurretik, Mikel Markezek kantaldia eskaini zuen.

O. Barroso-A.M. Peñagarikano
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12en0c>

Gaia: Zuek biak trenak zarete, bata abiadura handikoa eta bestea abiadura motelekoa. Larrunera igotzen den tren motela kendu eta abiadura handikoa jarriko dute. Oraintxe ari dira aldaketa egiten, tren zaharra kendu eta berria, azkarra jartzen. Peñagarikano tren zaharra, motela da eta Odei tren berria, azkarra.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A.M. Peñagarikano

Inguru hontan nik daramatzat
neuk ez dakit zenbat urte
ta aldaketa egin behar dela
hala erabaki dute
ta aurrerakoia zeraten danok
konturatu al zerate?
jendeak zenbat negar eingo dun
ni kentzen baldin banaute?

O. Barroso

Jendeak negar eginen al du
egonen al da serio?
Baina aukera egina dute
eta neretzat pario.
Nahiz ta agian tren berritxo hau
aterako den kario
barkatu baina berziklatzeko
ere ez duzu balio.

A.M. Peñagarikano

Urte askotan hor ibili naiz
erdi jostailu modura
heldu askori oain haurtzaroa
etortzen zaio burura
sartu barruan ta Larrunera
joaten zen une hura.
Ez zait gustatzen mundu txar honek
daraman abiadura.

O. Barroso

Abiadura ez duzu maite
bota duzu hitz argia
lehen emeki-emeki goiti
pasaia, behia, ardia...
Orain bakarrik ikusiko da
ene barneko argia.
Lehen tren ttikia deitzen zioten
eta orain tren handia.

A.M. Peñagarikano

Eta gainera hots berezia
nerekin nik neukan *run-run*.
Une batean hain nago goibel
zu ere ez zaude zurrun.
Ni nintzelako lotura neukan
bai Sara eta bai Larrun
noiz eduki det progreso gertu
ta arrazoia hain urrun?

O. Barroso

Nahiz arrazoirik ez zaizun falta
zoazi bide txarrean.
“*Run-run*” diozu baina jendeak
arre hemen ta arre han.
Nahikoa gauza ez dagoenez
mendi parteko larrean
nik hamar bidai eginen ditut
zure joan bakarrean.

A.M. Peñagarikano

Nola edo hala iristen nintzen
kolpeka eta kolpeka
baina umeak beti zoratzen
umetxoek berriketa.
Eta aurrera egin behar dala
esanagatik tarteka
gerora zeinek pagatuko du
tren haundiaren hipoteka?

O. Barroso

Trenak prezio garestia du
ta hutsik dago sakela.
Hala ere ni ezarri naute
antza hala komeni zela.
Ni igoko naiz abiadura
handian gora horrela
eta emeki joan nahi dutenak
oinez joan daitezela.

ELIZONDO (2012-11-17)

Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Maia, X. Silveira, I. Zubeldia eta J. Soto.

Gai-emailea: Fernando Anbustegi.

Baztango Ikastolako Guraso Elkarteak antolaturiko bertso-saioa. Lur dantzalekuan izan zen, arratsaldeko seietan. Han jokatu izan diren finaletan sortu ohi zen bezalako giro beroa izan zuten. Ikastolako haurrek agurrak kantatu zituzten.

I. Zubeldia-J. Soto

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12eo2o>

Gaia: Pisukideak zarete. Are gehiago, logela ere partekatzen duzue. Gaur Ikerrek neska-laguna ekarri du lo egitera. Argiak itzali berri dira.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

I. Zubeldia

Etxera etortzea
beharrezkoa zen
intimidade asko
ez degu gozatzen
neska hartu det eta
sartu naiz ohatzen.
Julio hasi al haiz
ardiak kontatzen? (bis)

J. Soto

Nik artaldean ez diat
ardirik bizirik
ta orduan ez diat
kontatzen ardirik.
Hi eta konpainia
alboan jarririk
ohatzean neretzako
ba al zeok tokirik? (bis)

I. Zubeldia

Bapo afaldu degu
biok lasai-lasai
gau elegante fin hau
errematatu nahi
ta hau manta azpian
axaria mun²² zai
nahi dekena entzun baina
isilik egon hai! (bis)

J. Soto

Ikusi haut pasilloan
hentorrela lasai
gaur gozatuko diat
hartu zioat usai
baino ezin badiat
zuekin hortan ai!
Nahi dukena ein zak baina
isilik eon hai! (bis)

I. Zubeldia

Behingoan ligatu dik
Zubeldia motxak
gauean bota dizkik
beidatu txorrotxak.
Romantiko gaudenez
taupadaz bihotzak
gaua markatuko dik
jergoiaren hotsak. (bis)

J. Soto

Jartzen baldin baditek
gertu *golosina*
ez duk ona izaten
probatu ezina.
Jarri beharko diat
txinotan egina
urgentzitan bezela
tartean kortina. (bis)

I. Zubeldia

Ohean sartu eta
noizbait hasi gera
ta arnasa estuka
pisukide bera
ni ari naizenean
gozatzeko era
idiana jotzera
joan hai komonera! (bis)

J. Soto

Ez pentsa, hortarako
ze tentazioa!
Gu lagun minak gaituk
ta ze sesioa!
Ez badidak banatzen
gaurko bizioa
firmatu beharko diagu
separazioa. (bis)

A. Arzallus-M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ep54>

Gaia: Bi emakume zarete. Zuk, Amets, oraintxe eduki duzu haurra. Zuk, Maialen, laurogeitan hogeit urteko ama zaintzen duzu. Gaur, plazan, elkarren ondoan egokitu zarete, amaren gorpildun aulkia eta haurraren kotxekapota.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun*

M. Lujanbio

Aulki gorpildun bati tiraka
bide zuzena okerra
zurearekin topo ein ta bete
degu bankuan bazterra.
Haurra ta amona biak zenbat lan
zenbat mimo, zenbat gerra!
Baina zaintzetik zaintzera aizu
badago alde ederra!

A. Arzallus

Bizitza honen bilakaera
nunbait bereizi behar baitzen
pentsa ezazu ez dela hausten
beti duela jarraitzen.
Nahiz ta zainketa gogor horrekin
den hari hori amaitzen
berak zu zaindu zinduelako
ari zara bera zaintzen.

M. Lujanbio

Batzuek hasten bestek amaitzen
nola bizitza hori dan
zure umeak dena aurretik
hainbeste urte segidan...
Gure amonak azkena gertu
amildegia dilindan
ta ni berari beira pentsatzen
neri're zer datorkidan.

A. Arzallus

Nahiko galdera zaila da baina
ahaleginduko natzaizu:
ni bezalaxe norbait zaintzeko
maitasunez zara gai zu
eta nahiz eta bukaera beti
mingotsa ohi dugun aizu
zuk ereindako maitasun hori
bueltan etorriko zaizu.

M. Lujanbio

Etortzen bada nik hartuko det
horretaz ez naiz kejatzen
sarri gabiltza ume txikiak
izan ala ez pentsatzen
gu sasoiko ta gazteak gera
ta bizitza betean zen
ta gure zaharrak zahartzen dirala
maiz ez gera konturatzen.

A. Arzallus

Baina jakintza isilekoa
hor daramagu senean
hemen irrizka dagon bakarra
haur hau auto barrenean
ta bizitzaren konklusioa
horixe da azkenean:
gure bizitza ederrena da
ohartzen ez garenean.

DONOSTIA (2012-11-23)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Martin,
B. Gaztelumendi eta J. Soto.*

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Donostia Kulturak antolatzen duen jaialdi hau urteroko hitzordua da Lugaritz kultur etxean. Gauean izan zen. Aretoa entzulez beterik.

B. Gaztelumendi-J. Soto 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12eq7g>

Gaia: Entzungo zenuten, noski, Euskadi Irratiak 30 urte bete ditu gaur. Zuek biok jaio gabe zeundeten hura sortu zenean, eta ni oso txikia nintzen, baina badakigu une garrantzitsua izan zela oso. Azken urteotan, ordea, beste komunikabide batzuek askoz indar handiagoa hartu dute: Facebook, Twitter, Whatsapp... Zuk, Julio, aukera horiek guztiak izan arren, egunero entzuten duzu irratia. Beñatek ez du irratia beharrik sentitzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala I*

J. Soto

Teknologiak aurrean eta
nola eman ezezkoak?
Facebook-en Tuentin eta Twitter-en
hizki urre-urrezkoak.
Nik irratia gabe izaten
ditut goiz ezinezkoak
uhin bidez ailegatzen zaizkit
albiste fresko-freskoak.

B. Gaztelumendi

Ai baina zeinen bitxiak diren
gure Euskal Herri honenak!
Nahiz orduroko etenalditan
azaldu gure problemak
nahiz ta Euskadi Irratikoak
diren albiste onenak
tamalez askoz gehiago dira
esaten ez dituztenak.

J. Soto

Esne pixka bat katiluan ta
irratitxoak hormetan
jarri gosaltzen eta burua
arazo azal-sakonetan.
Twitter-en *tik-tak* Facebook-en *tik-tak*
serio edo brometan
mundu honetan egonagatik
ez zaude mundu honetan.

B. Gaztelumendi

Eta zu berriz horren moderno
informatuta galako
mermeladakin tostada busti
kafesnea hartu bapo.
Nik Twitter-ekin pasatzen ditut
orduak ordea pranko
zure berriak zahartuta daude
entzuten dezunerako.

J. Soto

Ze inporta du berri zaharrak
edo berri berrienak?
Jarri pantailan *tik-tak* idazten
eta bi begi gardenak
txuri kolorez ta azkenean beltz
dira sare sozialenak
azkenerako bihurtzen dira
sare antisozialenak.

B. Gaztelumendi

Eta zuk berriz sozializatzen
zerala halaxe uste
baina tamalez irratigintzan
nahiko arazo badute
bekariok etorri ta joan
kontratu laburren truke
oraingo ahots igualak zeuden
orain hogeita hamar urte.

J. Soto

Lehen ahots berdinak zeudela
bale egia hori da
esperantza dut aldatzekoa
garai berrien harira.
Aukera badut baino ni ez naiz
sartzen Twitter-a, Tuentira
nik harremanak egiten ditut
begietara begira.

B. Gaztelumendi

Zure bertsoa aditu eta
algaraz lehertu naiz kasik
partiduren bat baldin badago
egiten al dezu hitzik?
Berez Twitter-ek zein irratiak
ez dute sortzeko gaitzik
hemen problema ez baita tresna
nola erabiltzen den baizik.

SONDIKA (2012-12-01)

*Bertsolariak: M. Mendizabal, A. Egaña, S. Lizaso
eta E. Lekue.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Sondikako Kultur Etxean izan zen, iluntzeko zazpitan. Ehun eta berrogeita hamarren bat bertsozale elkartu ziren bertsoak entzutera.

S. Lizaso-E. Lekue

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12er9s>

Gaia: Sebastian, zu kasu honetan tabernaria izango zara, eta Etxahun zure bezero gaztea. Egunero etortzen zen eta kafetxo bat hartzen zuen, baina beharretik bota dutenetik kafea eta kopa eskatzen ditu. Gaur ere etorri da. Kafea eta kopa eskatu ditu, eta kopa ateratzean esan diozu “Zuk esan bale”; traka, traka, traka eta “Bale”rik ez dago.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso

Hainbat urtean kafea hartzera
etortzen zinen propio
halabeharrez lanpostuak’e
esana dizu adio.
Orain kopa ta goraino bete
besterik ez du desio.
Barkatu baina penak kentzeko
alkoholak ez du balio. (bis)

E. Lekue

Lehen kafetxu bat hartu ostean
beharrera Etxahun alai
orain beharrik ez dekot eta
ezer ez da pozteko gai.
Denpora sobran dekot nik eta
tragoa hartuko dot lasai
penak ahazteko ez dau balio
baina despistatzeko bai. (bis)

S. Lizaso

Ustez aurrera zoazela ta
joan zindezke atzera
ta bide horrek emango zaitu
zeure burua galtzera.
Lehen kafeakin hiltuna zinen
berritsu baten antzera
ta orain berriz kopa hartuta
isilik gelditzen zera. (bis)

E. Lekue

Indar apurrik baldin baneuko
egingo neuke garrasi
berbetarako ez dot gogorik
ez baitakit nondik hasi.
Honek bizitza laburtzen ei dau
zeuregandik dot ikasi
baina horrela bizitzekotan
kasik hoba da ez bizi. (bis)

S. Lizaso

Nahiz eta jakin bizi irauten
dadukagula lan zaila
hiltzeraino zuk ez zazu bultza
zure etsipenan maila
penagarri da alkoholan morroi
zu bezelako mutila.
Utzi kafea nere kontu ta
zoaz zu lanaren bila. (bis)

E. Lekue

Orain artean ein izan dodaz
lan alkarrizketa batzuk
baina erantzun bati bardina
“Trankil abisauko zaitut”.
Dirurik ez dot, neure kontuan
apuntatu egizu zuk
kafea soilik nahi dodanean
dana ordainduko dotsut. (bis)

S. Lizaso

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12esc8>

Gaia: Gaur isun bat jarri dizute, ehun eurokoa, baina zure ustez ez da bidezkoa izan. Erreklamatzeari pentsatu duzu, baina esan dizute epaitegira joanez gero, berrehun euro ordaindu beharko dituzula tasa moduan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Pello Josepe tabernan dela I-A*

Jakin berri dut hala ere nago
ia ezin sinetsita
multa neretzat ezin nun hartu
eta gainera bisita
epaitegian ezin det lortu
erreklamatzeko zita.
Injustiziak zabaltzen dira
Justiziatik hasita.

Ez naiz bakarra ate ondoan
ez zaigu falta marmarrik
reklamazio biderik gabe
nork ziurtatu biharrik?
Dirudienez diruak soilik
epaitegitan indarrik
justizia ere izango degu
aberatsentzat bakarrik.

PPk legea aldatu digu
gainera goitikan behera
jende xeheari galeraziaz
justiziaren aukera.
Lehen erruduna nor zan agertzen
saiatu jueza bera
ta orain berriz ez jakinean
denok errudunak gera.



Plazatik Geztetxera. Elgoibar.

Iturria: XDZ

ORIO (2012-12-06)

*Bertsolariak: A. Egaña, M. Lujanbio,
I. Gurrutxaga, S. Colina eta A. Estiballes.*

Gai-emailea: Unai Manterola.

Urteroko hitzordu bihurtu da Errikotxia bertso-eskolak San Nikolas egunarekin antolatzen duen jaialdia. Guean izan zen, eta ia bostehun lagun elkartu ziren Karela kiroldegian.

I. Gurrutxaga-M. Lujanbio
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12etek>

Gaia: Azken urteetan gauza asko aldatu dira. Orain urte pila bat baloi bat zeukana nagusi izaten zen, ia ekipoak egiteko eskubidea ere ematen zitzaien, eta baloia urrutira joanda ere, ahalegin handiak egiten ziren baloia ekartzeko. Orain, berriz, edozein ujola izaten denean erriean hogeit hamar baloi ikusteko ez da ezer behar. Gauzak aldatu dira nonbait.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

M. Lujanbio

Baloi bategatik eutsi
zenbait hortz ta zenbait aho
edo frontoiko txapara
zein iristen zen lehenago.
Azkenaldiko kalejirekin
baino harrituta nago
igual baloiak ikusten dira
umeak baino gehiago.

I. Gurrutxaga

Kaleak kotxez gainezka
dana hormigoi ta txapa
lehenago ibiltzen ziran
ume kozkorrak bueltaka.
Orain bakoitzak beretzat dauka
larruzko baloi aparta
baina berekin jolastu dezan
leku ta lagunak falta.

M. Lujanbio

Lehen igual frontoi ixkinan
lagunak noiz etorri zai
baloiekin kanikekin
jolastu gintezkeen lasai.
Oraingo haurrak izango dira
nola ez jolasteko gai
jostailua ez da beharrezkoa
jolasteko gogoia bai.

I. Gurrutxaga

Ta hortarako gogo bila
nola eta nundik hasi?
Hemen guztia ez baita
galdu edo irabazi.
Jostailu asko askotan nunahi
ez dauzkate gutxi kasi
baina jolasa sormena bada
sortzen ezin da ikasi.

M. Lujanbio

Lehengoa beti hobea
sarri kontua hoixe'a.
Hala ere arazoa
ez da ez oraingotxea!
Heldu jendea ere ez al da
haurrak bezelakotxea?
Bakoitzak bere pisua degu
bakoitzak bere kotxea.

I. Gurrutxaga

Bakoitza bere etxean
hori egi nabarmena
horren araberakoa
gizartearen ordena.
Hemen nork bere burua dauka
bere jostailu onena
baina tamalez mundu erdiak
apartatuta duena.

M. Lujanbio

Ta beraz mundu erdiak
beste erdia mantendu
balantzan alde onean
orain artean geunden gu.
Orain sistemak ja ez daukanez
behar hainbeste sostengu
nunbait dirua falta izateak
irudimena pizten du.

I. Gurrutxaga

Gabonetako kartan'e
zenbat eskari zerrendan!
Egia esanda ez dakit
beti hala gertatzen dan.
Irudimena ez da erosten
diozun bezela dendan
ta ea krisitik gutxin-gutxinez
hoi behintzat ateratzen dan!

BILBO (2012-12-15)

Bizkaiko txapeldunaren agurra

A. Estiballes

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12evjc>

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator iparraldetik*

Prestatu gabe neukan agurra
rimatu beharko dut “-ari”.
Lehenengo ta behin bihotz-bihotzez
Karmelo Ikastolari
ta nola ahaztu bertan ikasten
dauden Euri eta Maindi
Anizetori, Kepa, Lopari
ta baita Jon Enbeitari
ta Santutxuko bertso-eskolari
gaurko zortzikoteari
ta bereziki Etxahun Lekueri
ta baita Fredi Paiari
eta nola ez zuri entzule ta
Euskal Herri osoari
gure ondoan dagoenari ta
laster egongo denari.

DONOSTIA (2012-12-20)

*Bertsolariak: J. Maia, M. Lujanbio, A. Egaña eta
A. Rezola.*

Gai-emailea: Unai Agirre.

Hernaniko *Bertsolataren* barruan, Basque Culinary Center-en *Bertso gutitziak* izeneko jaialdia antolatu zuten. Ostegun arratsaldean izan zen saioa, eta bete egin zen aretoa, denera berrehun lagun.

A. Egaña 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12euh0>

Gaia: Zuk, Andoni, urte asko daramatzazu plazan. Lehen kontatzen ahalegindu naiz, eta igual hogeita hamar urtetik gora bai. Atzera begiratuta, zer aho zapo geratzen zaizu?

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Bertsoak elkartzen ditu
ohitura ta fantasia.
Unaik galdera egin dit
urteak badoaz ia
bertsoa dut bizimodu
bertsoa ia bizia
bertsoa dut alimentu
ta bertsoa kutizia.
Batzutan joan-etorria
nahiz ta gertatu gazia
lagun onak egiteko
izandu baitet grazia
sekula ez zait damutu
noizbait bertsotan hasia. (bis)

Duela hogeita hamar urte
behin egindako aukera
ia premizkoak nitun
boligrafo ta papera
pentsatzen nun “Amuriza
berdingarria ote da?”
hurbiltzen nintzen holako
izar hoiez egotera.
Ordun abiatu nintzen
plaza batetik bestera
mundua aldatu nahi nuen
bertsoen bidez ospera!
Ta bertsoak aldatu du
nere mundu ikuskera. (bis)

Gerora etorri ziren
finalak eta txapela
ez da garrantzitsuena
ez naiz halako txepela.
Bertsoak deskubritu dit
lagun talde bat itzela
bertsoak erakutsi dit
Euskal Herri bat badela.
Beste urte pila baten
segi nahi nuke horrela
plazatan bertso kantari
ari naizela naizela
indarrak ahitu artean
Joxe Agirrei bezela.²³ (bis)

(23) Bost egun lehenago hil zen Joxe Agirre "Oranda" bertsolaria.

GASTEIZ (2012-12-20)

*Bertsolariak: I. Viñaspre, M. Agirre, O. Perea,
J. Uria, I. Elortza eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Ignacio Aldecoa kultura etxeak antolaturiko saioa. Kultur etxean bertan izan zen, arratseko zazpi eta erdietan.

I. Viñaspre-J. Uria

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f0lo>

Gaia: Gaur betetzen dira 200 urte Grimm anaiek lehenengo ipuin bilduma atera zutela. Zu, Jone, oso ipuinzalea zara, baina ez zaizu gustatzen ipuin klasikoek emakumea nola tratatu duten historian zehar. Zure umeari ipuin horien bertsioak kontatzen dizkiozu, eta pixka bat nahasita dago. Kontatu dizkiozu Txanogorritxorena, Loti Ederrarena, denak aldatuta, eta gaur tokatzen da Edurne Zurirena kontatzea.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

J. Uria

Ipuin berri bat kontatu behar
heldu zarenez galdezka
orain arteko ipuin gehienek
sortu arren nahiko kezka
honetan behintzat hasierakoa
horren desberdina ez da:
zazpi ipotxak gizonak dira
ta protagonista neska. (bis)

I. Viñaspre

Baina hala're buruan ditut
orain nahasketa kristonak
nahiz ipotxenak oraindik sortu
barrenean zorionak
klasean ere esan digute
“Dira meatzari onak
ta horregatik dute bizarra
ta denak dira gizonak”. (bis)

J. Uria

Neskei ere eman zieten
meatzerako ordena
denak batera zeuden lanean
hori da gertatu zena
baina hala ere sartuta zazpi
ipotx hoietan barrena
hain juxtu eta kasualitatez
mutua zen azkarrena. (bis)

I. Viñaspre

A! Azkarrena zen mutua ta
sinisteko daukat lana
ez dut ulertzen mutua bazen
hori dugun nork esana.
Hitz egitea ta isiltzea
ustez ulertu dut dana
hargatik neskek horrenbeste hitz
egiten al dute ama? (bis)

J. Uria

Bai baina neskok diogun denak
badu nahikoa interes
ta bukaera aldeari beraz
arreta jarri mesedez.
Argituko dut justu kapital
berdean bizi garenez
printze urdinik ez da existitzen
eta berderik ere ez. (bis)

I. Viñaspre

Aber ulertzen dudan apurka
azaldu didazu zuzen
baina printzerik ez dela agertzen
oraindik ez dut ulertzen.
Esan didazu “Sagarra janda
apurka joan zen lokartzen”
eta printzerik ez bazegoen
dena nola konpondu zen? (bis)

J. Uria

Printzerik ez zen agertu eta
ipini zara artega
nola konpondu ote zen dena
hori da zure galdera
printzerik gabe konpondu zen bai
ta erantzuna haxe da:
Edurne Zurik berak bakarrik
egin baitzuen aurrera. (bis)

O. Perea

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f1o4>

Gaia: Laurogeita bost urteko emakume zaharra zara. Txikitan etxeko lorategian zuhaitz baten hazia jarri zenuten, eta zurekin batera hazi da zuhaitz hori. Laurogeita bost urteko zuhaitza zen, gaixotu egin da eta moztu egin behar izan duzue. Eta orain, beheko suaren aurrean zaude jausitako zuhaitz hori erretzen.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Ene haritza ene zuhaitza
ene lagun aspaldiko
zenbat konpartitu dugun biok
gaur pentsatzen nereko
malko txiki bat erori zait ta
barruko arnasa ito
jakin nahi nuke nire barrua
mantenduko ote den tinko.
Zuhaitza moztu ta egur zatitan
egin zintugun betiko
baina zuk piztu didazun sua
ez da erraz itzaliko.

Bizi izan ditugu maitasunak
bizi izan ditugu gerrak
busti dituzu itxaropenez
eta malkoez bazterrak
zure adarrek ere ikusi
dituzte nire plazerrak
larogeita bost urte luzeetan
hautsi zaitu motozerrak
baina oraindik bizirik gaude
ta ez Jainkoari eskerrak
ta zure ezkurrek baietz guri eman
zuhaixka txiki ederrak!

AZPEITIA (2012-12-23)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio,
S. Lizaso, Uxue Alberdi eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

Txapel bertsolariaren omenez urtero antolatzen duten saioa. Erniarraitz Bertsozale Elkarteak Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Jose Luis Gorrotxategi eta Laxaro Azkune omentzeko baliatu zuen. Bete egin zen San Agustin kulturgunea, eta jende asko kanpoan geratu zen, sarrerarik gabe.

A. Arzallus-A. Egaña 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f2qg>

Gaia: Euskal Herrian bizi dugun giro honetan egia osoa ezagutu behar dela, eta horri buruz asko esaten da, irakurtzen da. Egia osoa jakitea posible al da? Komeni al da? Zer diozue?

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

A. Arzallus

Ez dago garai bateko
predikadore apaizik
nahiz orain politikoek
predikatzen duten pozik
egi osorik ez dut sinisten
nik baden halako gauzik
ez dago egi absolutorik
bakoitzak berea baizik.

A. Egaña

Gaur ez gera tonto tuntun
edota asko jakinak
helmuga erakusten du
erlatibotasun finak.
Ahaztu ditzagun borobiltasun
predikuak ta dotrinak
gezur guztiak igualak dirak
egi danak desberdinak.

A. Arzallus

Egi bakoitzak nola dun
sortzailearen zoria
gezurretan berriz libre
ibili ohi da txoria.
Nahiz eta nahi den kontakizun bat
ta adostu memoria
gezurrez betea egon da beti
egiaren historia.

A. Egaña

Nabarmena historian
bedegula gezur pila
egia ez da tamalez
bakarra ta borobila.
Egi puntta bat bada ordea
argi geratu dadila
bat hartu eta joan gaitezen
egi muttur horren bila.

A. Arzallus

Lehen bertsolari onenaz
bazidaten nei galdetzen
esan nezakeen Egaña
has nintekeen zu omentzen
edo Maialen edota Joxe
segitzen dut nik zabaltzen.
Aizu norbere egia ere
beti joaten da aldatzen!

A. Egaña

Gaztetan aipatzen nuen
nik Amuriza laztana
Lazkano imitatzeko
egin nuen gero plana
gero Maialen mirestu izan det
hau da bihotzez esana
eguna noizbait heldu daiteke
“Amets” esango dedana.

A. Arzallus

Adarra jotzen ari da
hitza isuriz eztulka
bere barruan halako
pentsamendurik ez du ta
baina hala ere aditu dizut
irripartsu ta poztuta
zorionsua izan daiteke
hiru gezur sinestuta.

A. Egaña

Serio hasi gera gu
egiaz eta gezurrez
bertsolarien izenik
ez det kantatu aldrebes
esandakoa zinez esan dut
ez gaizki hartu mesedez
egi-egia ez gendun baina
gezur-gezurra ere ez.

A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f3ss>

Gaia: Zuen etxean badakite zenbat estimatzen zenuen Joxe Agirre, eta atzo zortzi notizia jakin zuenean, zure semeak galdetu zizun; “Aita, nora joan da Joxe Agirre?”.

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Ai hori begi ederra A*

Berririk latzena danba!
Elkarri hitzez esanda
“Heldu da Joxeren txanda”.
Jaiotzen denak hiltzea zor du
eta zor horrek demanda
baina hala behar zan da
Joxe Agirre *Oranda*
denon memorira joan da.

Plazarik plaza jo ta ke
Joxek ze sen ta ze arte!
Askok kontatu didate.
Beraz nahiz eta gorputzez joan
gure ondotik aparte
bertsoa bera bitarte
izango da geure parte
geuk kantatzen degun arte.

Beti eztarriaz kexu
baina gero zenbat mezu
ta bere hitzetan ze su!
Jon nere hitzei ez ulertuen
keinua egin diezu
ai! Harrituta zaude zu!
Nola uler dezakezu?
Lasai ulertuko dezu!

ORDIZIA (2012-12-29)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, A. Arzallus,
S. Lizaso eta X. Amuriza.*

Gai-emaileak: Irati Arrieta eta Inaxio Usarralde.

Goierriko bertso-eskolak Imanol Lazkanori esker ona adierazteko antolaturiko jaialdia.

Seiehun lagunetik gora elkartu ziren Majori kiroldegian.

Goierriko eta Erniarraitz bertso-eskoletako bina ikasle igo ziren oholtzara emanaldiari hasiera emateko, eta ondoren, Imanol Lazkanok amonari idatzitako bertsoak kantatu zituen Roman Elosegik. Bigarren zatian, Lazkanok ondo ezagutzen duten hiru lagunek hartu zuten hitza: Joxerra Garziak, Iñaki Muruak eta Amaia Agirrek (Mikel Mendizabalen izenean). Argiberri elkarteak eta Ordiziako Udalak opari bana eman ondoren, Txomin Garmendiak, Patxi Etxeberriak, Patxi Iraolak eta Jon Lopategik bertso bana eskaini zioten azpeitiarri; eta Lazkanok berak eman zion saioari amaiera, hiru bertso hauek kantatuta.

I. Lazkano 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f4v8>

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

Dena bertute dena ohore
nik ez al det ezer txarrik?
Hutsa gaur hemen ez balegoke
argiago den izarrik.
Bihotz oneko lagun zahar hauei
mezu bat bakar-bakarrik:
dutxatu berri batek ez zeukan
hoinbeste jaboi beharrik.

Holako une hunkitarako
ez nintzen ausarta jaio
gaur ere hortik entzule gisa
egon ninteke lasaio
bainan hala ere goierriarrei
esker oneko natzaio
gure barruko ni *kabroi* honi
asko gustatu baitzaio.

Hau bihotzaren dunduna eta
hau buruaren dandana!
Ahaztu ezin zaidan galderarekin:
nolatan neri hau dana?
Bainan bastoia hau bakarrik ez²⁴
behar nun kriston andana
merezi gisan banatutzeko
zuek guztiori bana.

(24) Ordiziako alkateak emandako makila eskuan zuen, eta gora jaso zuen puntu hau kantatzean.

SARIKETAK

GETXO (2012-02-24)

XI. Abra sariketa

*Bertsolariak: I. Vidal, E. Igartzabal, X. Igoa,
I. Majuelo, M.A. Txoperena eta Tx. Ormazabal.*

Gai-emailea: Miren Loizaga.

Getxoko Fadura garagardotegian jokatu zen XI. ABRA sariketa. Bapo afaldu ondoren, gaueko hamaikak aldera hasi zen saioa. Endika Igartzabal eta Maddi Ane Txoperena iritsi ziren buruz burukora, eta, azkenean, gabiriarrak jantzi zuen txapela.

E. Igartzabal-M.A. Txoperena
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f61k>

Gaia: Neba-arrebak zarete. Zuen aita edadetua da, eta gaixorik dago.
Zuk, Maddi Ane, zahar etxe batera eraman nahi duzu. Zuk, Endika, nahiago duzu etxean gelditzea.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Mendian gora haritza*

E. Igartzabal

Gure aitaren epela
ezin zitekeen bestela
ez ahaztu biok berari esker
bizirik gaudela.
Esango dizut horrela
nik neuk zainduko detela
bere garaian hark gu biokin
egin zun bezela. (bis)

M.A. Txoperena

Joan nahi bere ondora
ta hainbeste metafora
baina egia hain ezberdina
da beti gerora.
Lanak behera eta gora
ai! Falta zaigu denbora!
Guk nahi ez arren zahar etxean
hobe egongo da. (bis)

E. Igartzabal

Eztabaidarako mahaia
ez degu horren lasaia
gure etxean ta guk zaintzea
da neronen nahia.
Arreba eta anaia
ze familia alaia!
Eman ziguna bueltatzeko
orain da garaia. (bis)

M.A. Txoperena

Aita dugula tarteko
aizu zenbat errespeto
nik ere dakit gurekin egon
behar dela hobeto
baina daukat esateko
eta hau ez da ahazteko
guk ere etxean baditugula
bina haur zaintzeko. (bis)

E. Igartzabal

Ene arreba laguna
gure etxeko jarduna
izan liteke ta aitarekin
nahikoa txukuna.
Lanean pasa eguna
asti eza daukaguna
baina ezin diou hola ukatu
gure maitasuna. (bis)

M.A. Txoperena

Nahi dugu eduki bero
ez bilakatzeko ero
baina ez badugu orain eraunten²⁵
joango da gero.
Ta hoberik ez espero
maite dugu honezkero
eta bisita eingo diogu
biok egunero. (bis)



Umorez jardunaldiak. Villabona.

Iturria: XDZ

(25) Eramaten.

AZKOITIA (2012-03-02)

II. Aizpurutxo sariketa

*Bertsolariak: M. Iturriotz, A. Iturriotz, E. Artetxe,
M. Mantxola, B. Torres eta J. Sudupe.*

Gai-emailea: Maialen Akizu.

Zumarraga-Urretxuko bertso-eskolak antolatzen duen sariketa hau Aizpurutxoko Itziar jatetxean izan zen, hogeita hamarren bat entzuleren aurrean.

M. Iturriotz-A. Iturriotz

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f740>

Gaia: Zuek biok bikotea zarete, elkarrekin urte dexente daramazuen bikotea. Gaur, ordea, Mikelek Amaiari esan dio zerbait egin beharko lukeela bere itxura aldatzeko.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

M. Iturriotz

Erlazioakin behin
in gendun aurrera
baina ez gabiltz ondo
azkenaldin *keba*
zeren nere begiek
aspaldi gainera
ez dute erakusten
lehengo neska bera.

A. Iturriotz

Nere gerrialdea
omen da mardula
halakorik ez nuen
espero sekula.
Gogoratzen dizut lehen
esaten zendula
naizen bezelakoa
maite ninduzula.

M. Iturriotz

Baina aldatu naiz nahiz
ematen don pena
eta hartu ezazu
adizu kemena
izan zaitez hemen zu
neskarik onena
nik pagatuko dizut
zirujia dena.

A. Iturriotz

Zirujia ez det nahi
ematen dizut hitz
zu're zahartu zera ta
pattalago zabiltz.
Nik'e nahiago nuke
hori mila aldiz
ximurretan bakarrik
antzemango balitz.

M. Iturriotz

Gainera azkenaldin
jaten dezu bapo
eta aizu ez zabiltz
Amaia galako.
Nik ere zirujia
det egin beharko
sudur motxegia det
kontu onerako.

A. Iturriotz

Holakoak esaten
zabiltz txorimalo
egingo dezunik're
ez dakit auskalo!
Ta barkatuko dizut
ez izan txotxolo.
Hala ere gaur sofán
egingo dezu lo.

E. Artetxe

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f86c>

Gaia: Denbora bat pasatu da, eta poliki-poliki gorputzeko zauriak
sendatzen ari zaizkizu.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Duela zazpi urte ezagutu
ginen maitale onenak.
Lehen muxuak, orain kolpeak
erretzen dizkit barrenak.
Lehen maitasuna denbora aurrera
ta harrapatu nau trenak.
Sendatu zaizkit gorputz osoan
nituen marka gehienak
baina buruan dauden zauriak
dira sendaezin direnak. (bis)

Hasera baten bikotea zen
horren eder, horren lerdén
ta azkenean labana batez
laztandu ninduen hemen.
Eta denborak gaizki jarri nau
ez al da nahiko nabarmen?
Baina kontu honi aurre egiteko
badudanez nahiko kemen
denborak gero erakutsiko
du gaixo dagona nor den. (bis)

AZPEITIA (2012-03-23)

VI. Erniarraitz Sariketaren finala

*Bertsolariak: A. Urbietta, O. Barroso, A. Iturriotz,
A. Karrika, Arrate Illaro, Eneritz Artetxe.*

Gai-emailea: Gurutze Oiartzabal.

Azpeitiko Gaztetxean hirurehun lagun inguru elkartu ziren saioa jarraitzera.

A. Urbietta-O. Barroso

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12f980>

Gaia: Zu, Aitor, gurasoa zara, eta Odei irakaslea. Gaur, Aitor, zure alabaren irakaslea ezagutzera joan zara. Nor topatuko eta; Odei: orain hogeita hamar urte zure irakasle izan zen bera.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Urbietta

Ikastoletan beti
jolasak, jokuak
maisua ezagutzera
gu gera moituak
baina antza denez hemen
daude lehengokuak
erakutsiko ditu
frankismo kontuak. (bis)

O. Barroso

Bada ahantzi zazu
frankismoa zena
ez daukazu alaba
isil ta zuzena.
Hara Aitor Urbietta
klaseko kirtena!
Orain badakit nundik
datorren problema. (bis)

A. Urbietta

Nere alaba txikia
ja irainez betez
Barroso jauna maisu
du beraren kaltez.
Problema hor zu zara
ta isildu zaitez
jakintza asko dezu
pazientzirikan ez. (bis)

O. Barroso

Argi erran dut baina
ez du konprenitu
bai hezkuntzak baditu
mila zirrikitu.
Nahiz zeroak ipintzen
ni entretenitu
zuk baino nota hobeak
ateratzen ditu. (bis)

A. Urbietta

Eskola zaharra ez du
honek beste etxerik
egiya ikasteko
nik ez nun goserik
baina orain ez dago
lehengo trantzerik
gaur egunean ez dago
umeak jotzerik.(bis)

O. Barroso

Ba orduan botako
dizkiot bi harri
nahiz begirada bota
guk xuxen elkarri
segi hemendik urrun
lasai edo larri
baina beste umerik
ez zazu ekarri! (bis)

O. Barroso 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fab4>

Gaia: Kupela taldearen Bizi zaitez bizi kantuaren zatia entzun da megafoniatik: “Bizi zaitez bizi, ahalikan ondoen, inork ez baitakigu, bihar zer dagoen”.

O. Barroso

Neurria: Hamalauko txikia
Doinua: *Kantuz sortu naiz eta*

Sarritan triste gaude
begirada ilun
irrifarra txikia
esperantza urrun
etortzen den guzia
ez dugu ezagun.
Beraz aurreikusten
zetarako jardun?
Zer dator bihar etzi?
Ze berri da lagun?
Ze pasatu zen atzo
ta zer herenegun?
Momentua bizitzen
ikasi dezagun. (bis)

Orain direla armak
bonba, metraileta
batzuk badoazela
bakearen xeka
aurreikusi nahiean
gabiltza erreta
behar diren gauzengan
ezarriz arreta.
Bada txorakeritan
ez gaitezen neka.
Zergatik hartu utzi
jira eta buelta?
Zerbait lortu orduko
kentzen digute eta. (bis)

Batzuk erraten dute
“Presoak aurrena”
beste batzuk diote
guda bat hurrena
batzuek autobusa
ta besteek tren
batzuk nahi dute ezer
ta besteek dena.
Piztu beharko dugu
esperantza sena.
Ez beiratu ordua
ahantzi ore
ta bihar etorriko
zaigu datorrena. (bis)

GABIRIA (2012-04-14)

Osinalde sariaren finala

*Bertsolariak: P. Ormazabal, M.A. Txoperena,
N. Zinkunegi, I. Uria, J. Oiartzabal eta
A. Iturriotz.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde Elkartean izan zen finala, urtero bezala. Aretoa beterik eta giro beroa.

N. Zinkunegi-J. Oiartzabal
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fbdg>

Gaia: Zuek biok San Mameseko leihatilan Europa League-ko finalaurrekoetarako sarrerak erosten topo egin duzuen bi Realzale zarete. Zer gertatzen da hemen?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

N. Zinkunegi

Gu zertan ari geran
zaila da esaten
holakoak ez dira
askotan izaten.
Hemen ikusi eta
hala kolpe baten
gure jokalariek
zerbait ikas ‘zaten. (bis)

J. Oiartzabal

Beti galdu beharrak
ematen du pena
horixe da Reala
gauza nabarmena
baina nitaz oraindik
ez dakizu dena:
ni errealista naiz
Bilbo da onena. (bis)

N. Zinkunegi

Athleticzalea hau
ze mutil epela!
Onan alde egiten
bai erreza dela!
Baina ez zaude sano
esango dut bela
bilbotar denak gaixo
omen zaudetela. (bis)

J. Oiartzabal

Gaixo nengoen baina
sendatu naiz garaiz
aspaldian gabiltza
hain aurpegi alaiz.
Athletic irabazten
nola ari dan maiz
bilbotarra izateko
oso umila naiz.

N. Zinkunegi

Ba nirekin dexente
harrotua zera
gora egiten dunak
egiten du behera
eta egunen baten
badegu aukera
hurrengo derbian elkar
ikusiko gera. (bis)

J. Oiartzabal

Eskatzen dezuna zuk
ez da gehiegia
ta baietz esatea
dugu zilegia.
Aukera ederra da
benetan neria
biok joka dezagun
oraintxe derbia. (bis)

A. Iturriotz

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fcfs>

Gaia: Lehen, telefono mugikorrik gabe kuadrillan moldatzen zineten ordu eta toki batean geratzeko. Gaur egun, zu zara mugikorrik ez duen bakarra, eta ez duzu jakiten noiz eta non geratzen diren lagunak.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Hola bukatu behar genunik
nola zitekeen sinestu
lehen hitzak ziren orain whatsappak
eta mezuek ordeztu.
Nik oraindikan ez det mobilik
eta aurkezten naiz prestu.
Barkatu baina garapen honek
inungo zentzurik ez du:
gure harremanak uzten ditugu
teknologiaren esku. (bis)

Politonoek betetzen dute
poltsikoaren atzea.
Zein erreza zen beheko tabernan
zazpietan geratzea!
Ez zait gustatzen bilakaera hau
ta ez dut lortu ohitzea.
Nik ez zaitut nahi mezu batean
egunero aurkitzea
beharrezko dut zu sentitzea
ikustea, ikutzea. (bis)

ITSASU (2012-05-05)

Hernandorena sariaren finala

Bertsolariak: M. Sarasua, O. Murua, A. Iturriotz, I. Majuelo, P. Ormazabal, B. Hirigarai, A. Solozabal eta M.A. Txoperena.

Gai-emailea: Joana Itzaina

Indianoenea ostatuan izan zen, afariaren ondotik. Aretoa bertsozalez bete zen, eta giro goxoa izan zuten kanturako.

O. Murua- M. Sarasua 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fdi8>

Gaia: Ortzi, zu zara Aita Saindua, eta, Maddi, Fidel Castro.
Elkarrekin hizketan ari zarete, lekukorik gabe.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

O. Murua

Biak elkartu eta
ez gabiltz ahapeka
laister hasiak dira
irain ta iseka.
Pistola atxiki zazu
zuk ongi gordeta
sotanan eskopeta
kabitzen da eta. (bis)

M. Sarasua

Eskopeta duzula
jarri naiz urduri
zure ondasun hori
behar duzu mugi.
Nahi duzuna opatzen
ahal dizut zuri
salbu nik gorritua
bihurtzea xuri. (bis)

O. Murua

Ez, ez hori ezin da
neri ez jo adarra
gorria txuritzea
ez da bat'e txarra
eta esango dizut
dut esan beharra:
iraultza da aborta
daitekeen bakarra. (bis)

M. Sarasua

Abortatzen ahal dela
iraultza bezela
zer egingen zinue
nere Aita bestela?
Lehenik eskopeta ta
agortua dela
ni naiz nerearekin
naizena fidela. (bis)

O. Murua

Ze Fidel diruak du
bai hemen balio
Estatu Batuak dira
zuen arerio
hil nahi ez dute lortu
ze erremedio
gu saiatzen bagira
laguna adio! (bis)

M. Sarasua

Estatu Batuak da
urekin guduan
hainbeste gauza pasten
gure inguruan
guk ideia garbiak
ditugu buruan
iraultza santu hori
zabalduz munduan. (bis)



EHU udako ikastaroak. Donostia.

Iturria: XDZ

EIBAR (2012-06-30)

Plazatik gaztetxera sariketaran finala

*Bertsolariak: M. Olaizola-E. Beretxinaga,
N. Ibarzabal-X. Galletebeitia,
M. Sarasua-A. Karrika eta I. Uria-Peru Vidal.*

Eibarko Gaztetxean jokatu zen, giro ederrean. Aurten, binaka aritu dira bertsolariak, eta buruz burukoan bikote hauek kantatu zuten: Nerea Ibarzabal eta Xabat Galletebeitia alde batetik, eta Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga bestetik.

M. Olaizola-X. Galletebeitia
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fekk>

Gaia: Duela hilabete eskatu genizkion udalari mahaiak-eta, Plazatik Gaztetxera sariketa hau antolatzeko. Fidantza eskatu ziguten, dena ordaindu genuen, eta orain dela bost egun esan ziguten ezetz, ez ginela Eibarko elkarte bat eta abar. Azkenean, betiko moduan, Plaentxiko udalera jo behar izan dugu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

M. Olaizola

Mahaiak eskatzeko
hamaika baldintza
fiantza bat pagatuz
hortarako giltza
ta Udaletxean beti
kontrara dabilta
baimenak ukatuta
nolako desdixa!
Haizeak eraman du
PSOEn hitza. (bis)

X. Galletebeitia

Boterean daudenak
beti lotsagabe
herri honetan ezer
ez denez debalde
mugimendu bat gara
ez elkarte, talde
aise helduko gara
mugetaz bestalde
nahiz ta haizea inoiz
ez daukagun alde. (bis)

M. Olaizola

Haizea kontran baina
borrokan jarraitu
ta metafora bat dut
ai Xabat barkatu
elkarriketarekin
horrenbeste kantu
egoera ikusiz
zera dut pentsatu:
mahaiak ez zaizkiela
sekula gustatu. (bis)

X. Galletebeitia

Laster bihurtzen dute
mahaia delitu
baina horrelakorik
ezin obeditu
eta noski ez gara
geldirik gelditu
herririk herri goaz
mugitu mugitu
elkartasunak muga
danak hausten ditu. (bis)

M. Olaizola

Udalak beti nahi du
gaztea jazarri
ukazioak ezin
gauz onik ekarri
ta egoera izan
leiken arren larri
danok eman daiozun
eskua elkarri
eta aulki ezean
baietz tente jarri! (bis)

X. Gallettebeitia

Berdin zaigu jarrita
edo tente eusten
aspaldi ikasi dugu
gerran irabazten
eta demokrazia
dagonez eskasten
udala bihurtua
daukagu salbuespen
ta gaztetxean baino
ez dugu sinesten. (bis)

N. Ibarzabal

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12ffn0>

Hitza gaitzat emanda: Morboa.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko*

Beti esan dot sexuan dago
oraina eta geroa
beti izan naz neska zoro bat
sutsua eta beroa
ta horregatik honako gaiek
ni jarten nabe eroa
ta bertsoagaz bat egitea
ez litzake arraroa
biluz-biluzik kantatzeak neri
emongo eustan morboa. (bis)

Bertso munduan sartzea oso
ideia ona izan zen
nire fantasi sexual guztiak
bertsotan dodaz asetzen
gai-jartzaileak gaia jartzen dau
eta nik bera dot jartzen
baina orain bero jarri dan dana
has dadila apartatzen
ze niri mikro luze-luzeak
baino ez zaizkit gustatzen. (bis)

ZARAUTZ (2012-09-07)

Lizardi sariaren finala

*Bertsolariak: M. Goiogana, B. Iguaran,
A. Urbietta, U. Gaztelumendi, H. Casabal eta
O. Aizpurua.*

Gai-emailea: Felix Zubia.

36. Lizardi sariaren finala ostiral gauean jokatu zen, Zinema pilotalekua entzulez beterik zela. Txapeldunari txapela Nikolas Zendoia bertsolariak jarri zion, urte askotan parte hartu baitu Lizardi sarian, hainbat eginkizunetan.

M. Goiogana-U. Gaztelumendi
<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fgpc>

Gaia: Jatetxe batean jabeak zarete. Gizartean bizi den egoera zaila dela eta, garai ilunak bizitzen ari zarete zuen jatetxean. Gaur, ordea, Ordizian saritutako gaztarekin azaldu da Unai jatetxera, 7.400 euro ordainduta.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espanian behera*

M. Goiogana

Ordiziako gazta
usaintsu mardula
zuk ekarria dela
ezin disimula.
Nahiz eta hau ez nuen
usteko sekula
zenbat diru den ezin
det eta kalkula
esaidazu bidean
aurkitu duzula. (bis)

U. Gaztelumendi

Holako detailerik
ez zenun espero
ta gure poltsikoak
ez daude hain bero.
Bilatu ote dedan
zuk galdetu gero
bidean bilatu det
bai bilatu-edo
ta bidean galdu zaizkit
zazpi mila euro. (bis)

M. Goiogana

Orain daukagunean
krisi nabarmena
hainbeste mila euro
ta gazta onena
baina dirua izan
daiteke problema.
Hau da egin dezun gauza
zentzugabeena
burua da bidean
galdu zenuena. (bis)

U. Gaztelumendi

Nahiz beti egon geran
lanerako prestu
aspaldian daukagu
gerrikoa estu.
Nahiz zazpi mila euro
ez dauden gure esku
nahiz zazpi mila euro
ja ezin aurreztu
jarri dun aurpegiak
preziorik ez du! (bis)

M. Goiogana

Zazpi mila euro ño!
ditugu gehiegi
Unai guk ezin degu
era hontan segi
ia ixtear gaude
gaude larriegi
ta taberna ixtean
beidatzeko neri
ez dezu edukiko
nahikoa aurpegi. (bis)

U. Gaztelumendi

Jesus! Ze erretxina
jarri zeran lagun!
Horrelakorik ez nun
hemen inoiz entzun
baino ondo egina
dagola demagun
ea holako gazta bat
berriz noiz daukagun
hartu pusketa bat ta
gozatu dezagun! (bis)

H. Casabal 🎵

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fhro>

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

F. Zubia

Zer moduzkoa zera
lapiko artean?

H. Casabal

Ze poza hartu dudan
hori esatean!
Ni zorionsua naiz
mahai buelta batean
ta are zorionsuago
dagona jatean.

F. Zubia

Bidean galdu dira
mila errezeta

H. Casabal

berdurakin egina
izango zan eta!
Haragia jar zazu
agian txuleta
ta baietz hutsa egon
zegona beteta!

ERRENTERIA (2012-12-08)

Xenpelar sariaren finala

*Bertsolariak: J. Uria, P. Ormazabal, A. Urbietta,
O. Aizpurua, G. Maiz eta U. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Mikel Lersundi.

Ereintza kultur elkarteak eta Xenpelar bertso-eskolak antolatzen duten sariketaren finala. Niessen kulturgunean izan zen, arratsaldeko seietan. Urtero omentzen dute Xenpelar saria irabazi duen bertsolariren bat, eta ekitaldi honetan Euzkitze omendu zuten.

J. Uria-O. Aizpurua

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fiu4>

Gaia: Jendaurrean bertsotan aritzeaz nekatuta zaudete eta gai-jartzaile lanetan hastea erabaki duzue.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

J. Uria

Beti pelmada ematen
behingoz behar dugu eten
bertsolaritzaz aspertu bainaiz
bertsolari izaten
gai-jartzaile halako baten
biok sartu behar genukeen
sariketetan behingoz gai onak
ipini ditzaten. (bis)

O. Aizpurua

Egin behar degu modu
hobeto egingo degu
orain artean gorputza dardar
horrenbeste ordu...
Gaur gai-jartzaile gera gu
beraz Jone hartu kargu
orain besteak izorratzea
egokitzen zaigu. (bis)

J. Uria

Zu zabiltzan gorrotoan
ni ere nabil gaurkoan
bertsolariak jarri ditzagun
beraz oztupoan
BECen buruz burukoan
jarri behar dugu atoan
esternokleidomastoideoa
bederatzikoan. (bis)

O. Aizpurua

Ideia ona atoan
nik ere badet golkoan
gaurko honetan ez dira joango
berehalakoan
bi txingurri desiertoan
gaia ez da joango doan
ta noski ere hau joango da
bederatzikoan. (bis)

J. Uria

Eta gaien ondorenak
jarri ondoren hortik zenbat
epailetzara salto egin behar dut
badauzkat bi lemak
epailetzan lan onenak
egin behar du hemen denak
buruz burura pasa daitezen
merezi dutenak. (bis)

O. Aizpurua

Nahiz eta egin herrena
hura izango da aurrena
buruz burura zergatik pasa
merezi duena?
Hau da pentsatu detena
nahiz ta zuk eman ordena
ni idazkari jarriko naiz ta
aldauko det dena. (bis)

J. Uria

<http://bdb.bertsozale.com/web/bertso/view/12fk0g>

Gaia: Ahaztezina izan da.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Xenpelarren azalduta
horrenbeste borondate
Oierrekin buruz buru
geratu ginen enpate
ta txapela berarentzat
penaz oroitu nezake
baina gaur Miribillan ze
animo ta ze aldarte!
Erakutsi dut dudala
horrenbeste kalitate
txapela neuk irabazi
ta eurek jantzi didate.
Gaurkoa ez zait ahaztuko
alzheimerra izan arte. (bis)

Ze gustora egon naizen
oholtza gainean kantari
oholtza ere sentitu dut
nire etxe nire kabi.
Horrelakoak ez daude
bizitzan ustez bi aldi
ta txapela eskeintzeko
ezin nintzen egon nagi
Unaik nahi zuen bezela
eskeinita amamari.
Pena dut nahiz ta saioan
egon den nahikoa adi
niri ez baina ahaztuko
zaiola laster berari. (bis)

Ni ez baina nire amona
dugulako zaharregia
nahiz alzheimerrik ez izan
sarri ahazten du erdia
ta beldurra hargatik dut
esan bahar badut egia
nik gaurko eguna ahazteko
nahiz ta izan komeria
berak oroituko al du
izan dela gehiegia?
Akaso oroituko du
betiko gaurko historia
sarritan selektiboa
dugulako memoria. (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	herria	bertsolariak	or.
2012-01-08	OIARTZUN	A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Egaña, I. Elortza, J. Maia, A. Martin, X. Silveira eta A. Sarriegi.	67
2012-01-13	GETARIA	J.M. Irazu, A. Sarriegi, B. Gaztelumendi, I. Apalategi, A. Martin eta A. Rezola	71
2012-01-15	MUNGIA	S. Colina, On. Enbeita, J.M. Irazu, J. Maia	76
2012-01-15	DONOSTIA	B. Gaztelumendi, J. Martin, J. Labayen eta Arkaitz Oartzabal “Xamoa”.	79
2012-01-21	TOLOSA	A. Sarriegi, A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus, J. Maia eta J.M. Irazu.	83
2012-01-22	ZEANURI	M. Lujanbio, A. Egaña, U. Iturriaga, A. Arzallus, I. Elorza eta J. Maia.	85
2012-01-28	DONOSTIA	J. Azpilla, I. Lazkano, A. Egaña, B. Gaztelumendi, O. Barroso, A. Mendiluze, U. Iturriaga, A. Karrika, S. Colina, M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano, A. Arzallus, O. Enbeita, J. Soto, O. Bartra, N. Elustondo, A. Sarriegi, M. Agirre, J. M. Irazu, A. Barandiaran, I. Viñaspre eta M. Sarasua.	87
2012-01-28	DONOSTIA	P. Etxeberria, J. Zelaieta, I. Ibarra, I. Zubeldia eta I. Mendiguren.	92
2012-02-02	BILBO	A. Mendiluze, I. Elortza eta M. Lujanbio.	95
2012-02-17	MUTILOA	I. Zubeldia, A.M. Peñagarikano, I. Murua eta S. Lizaso.	97
2012-02-25	LEZO	A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano, J. Maia eta A. Sarriegi.	100
2012-03-08	USURBIL	U. Alberdi, A. Agirreazaldegi eta O. Enbeita.	105
2012-03-09	MALLABIA	I. Urdangarin eta I. Zubeldia.	108
2012-03-16	ZESTOA	A. Barandiaran, I. Urdangarin, A. Salegi, J. Soto, A. Martin eta A. Rezola.	113

2012-03-23	HELETA	S. Colina eta A. Arzallus.	116
2012-03-23	OÑATI	On. Enbeita, U. Alberdi, A. Agirreazaldegi eta A. Martin.	119
2012-04-01	ZEGAMA	A. Egaña, A. Sarriegi, I. Zubeldia eta S. Lizaso.	122
2012-04-24	IRUÑEA	M. Lujanbio, U. Iturriaga, O. Estanga eta X. Paya.	126
2012-04-27	AZPEITIA	Ministro, N. Zinkunegi, M. Lujanbio, I. Elortza, A. Egaña eta U. Iturriaga.	131
2012-05-05	LASARTE – ORIA	A. Egaña, M. Lujanbio, U. Muñoa eta A. Labaka.	134
2012-05-13	DONOSTIA	U. Alberdi, A. Rezola, J. M. Irazu, Mantxi eta B. Gaztelumendi.	136
2012-05-13	MALLABIA	A. Egaña, B. Ugartetxea, I. Zubeldia, U. Iturriaga, M. Lujanbio eta A. Arzallus.	140
2012-05-19	URRETXU	U. Iturriaga, I. Elortza, J. Maia, A. Arzallus, N. Eustondo, G. Ojanguren eta U. Alberdi.	142
2012-05-20	DONOSTIA	A. Egaña, J. Maia eta Sustrai Colina.	148
2012-06-01	LEKEITIO	J. Maia, U. Iturriaga, A. Elortegi, X. Gallettebeitia, S. Colina eta A. Arzallus.	152
2012-06-17	EREÑOTZU	S. Colina, A. Rezola, A. Martin, A. Egaña eta M. Lujanbio.	155
2012-06-22	ORIO	A.M. Peñagarikano, J. Soto eta A. Egaña.	160
2012-06-23	TOLOSA	S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, A. Mendiluze, J. Uranga, J. Soto eta A. Agirre.	163
2012-06-29	LASARTE-ORIA	P. Etxeberria, M. Lujanbio, A. Egaña, A. Otamendi, A. Labaka eta A. Arzallus.	165
2012-07-07	LESAKA	A. Egaña, J. Soto, M. Lujanbio eta X. Silveira.	168
2012-07-08	AMOROTO	U. Iturriaga, I. Elortza, S. Colina, X. Paya, S. Lizaso eta M. Amuriza.	171
2012-07-10	IRUÑEA	J. Soto, On. Enbeita, S. Lizaso eta A. Karrika.	179
2012-07-11	GETXO ALGORTA	A. Egaña, J. Maia, U. Iturriaga, F. Paia, A. Arzallus eta X. Paya.	182

2012-07-18	ZORNOTZA	X. Amuriza, B. Ugartetxea, A. Egaña eta Unai Ormaetxea.	185
2012-07-27	AIA	M. Lujanbio, A. Arzallus, S. Colina, A.M. Peñagarikano eta A. Egaña.	187
2012-08-07	AIA	M. Lujanbio, X. Paya, I. Zubeldia, J. Soto, A. Egaña eta A. Arzallus	194
2012-08-09	GASTEIZ	J.M. Irazu, M. Agirre, A. Sarriegi eta U. Alberdi.	199
2012-08-13	LEITZA	J. Soto, M. Lujanbio, A. Arzallus eta A. Egaña.	201
2012-08-13	DONOSTIA	A. Martin, B. Gaztelumendi, A. Mendiluze eta A. Arzallus.	205
2012-08-14	BALIARRAIN	M. Lujanbio, A. Egaña, A. Arzallus, I. Zubeldia eta J. Maia.	212
2012-08-15	ZIZURKIL	J.M. Irazu, M. Lujanbio, A. Estiballes, A. Arzallus, A. Agirre eta A. Egaña.	215
2012-08-17	DONOSTIA	A. Agirre, U. Alberdi, I. Apalategi eta U. Gaztelumendi.	220
2012-08-24	AMEZKETA	A. Sarriegi, A. Rezola, S. Lizaso, A. Estiballes eta A.M. Peñagarikano.	223
2012-09-01	DONOSTIA	S. Lizaso, A. Sarriegi, J.M. Irazu, I. Elortza, M. Lujanbio eta A. Mendiluze.	228
2012-09-13	BERMEO	A. Estiballes, A. Egaña, U. Alberdi eta M. Amuriza.	235
2012-09-22	AIZARNAZABAL	S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, A. Egaña eta A. Mendiluze.	240
2012-09-30	IRURA	J. Maia, S. Colina, A. Martin eta A. Rezola.	242
2012-10-06	IURRETA	A. Egaña, J. Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio, U. Iturriaga eta M. Amuriza.	247
2012-10-12	LEKUNBERRI	O. Estanga, U. Alberdi, I. Zubeldia eta A. Martin.	251
2012-10-19	DURANGO	J. Maia, I. Elortza, M. Lujanbio eta M. Amuriza.	254
2012-11-02	ERMUA	B. Ugartetxea, S. Colina, I. Elortza, U. Alberdi, M. Lujanbio eta A.M. Peñagarikano.	257
2012-11-10	BAIONA	A. Arzallus	261
2012-11-17	SARA	M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano, M.A. Txoperena eta O. Barroso.	262

2012-11-17	ELIZONDO	A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Maia, X. Silveira, I. Zubeldia eta J. Soto.	265
2012-11-23	DONOSTIA	A. Arzallus, A. Martin, B. Gaztelumendi eta J. Soto.	270
2012-12-01	SONDIKA	M. Mendizabal, A. Egaña, S. Lizaso eta E. Lekue.	273
2012-12-06	ORIO	A. Egaña, M. Lujanbio, I. Gurrutxaga, S. Colina eta A. Estiballes.	277
2012-12-15	BILBO	A. Estiballes	280
2012-12-20	DONOSTIA	J. Maia, M. Lujanbio, A. Egaña eta A. Rezola.	281
2012-12-20	GASTEIZ	I. Viñaspre, M. Agirre, O. Perea, J. Uria, I. Elortza eta U. Iturriaga.	283
2012-12-23	AZPEITIA	A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio, S. Lizaso, U. Alberdi eta A. Mendiluze.	287
2012-12-29	ORDIZIA	M. Lujanbio, A. Egaña, A. Arzallus, S. Lizaso eta X. Amuriza.	291

Bat-bateko sariketak

Data	herria	bertsolariak	or.
2012-02-24	GETXO	I. Vidal, E. Igartzabal, X. Igoa, I. Majuelo, M.A. Txoperena eta Tx. Ormazabal.	295
2012-03-02	AZKOITIA	M. Iturriotz, A. Iturriotz, E. Artetxe, M. Mantxola, B. Torres eta J. Sudupe.	298
2012-03-23	AZPEITIA	A. Urbietta, O. Barroso, A. Iturriotz, A. Karrika, Arrate Illaro, Eneritz Artetxe.	301
2012-04-14	GABIRIA	P. Ormazabal, M.A. Txoperena, N. Zinkunegi, I. Uria, J. Oiartzabal eta A. Iturriotz.	305
2012-05-05	ITSASU	M. Sarasua, O. Murua, A. Iturriotz, I. Majuelo, P. Ormazabal, B. Hirigarai, A. Solozabal eta M.A. Txoperena.	308

2012-06-30	EIBAR	M. Olaizola-E. Beretxinaga, N. Ibarzabal-X. Gallettebeitia, M. Sarasua-A. Karrika eta I. Uria-Peru Vidal.	3119
2012-09-07	ZARAUTZ	M. Goiogana, B. Iguaran, A. Urbietta, U. Gaztelumendi, H. Casabal eta O. Aizpurua.	315
2012-12-08	ERREENTERIA	J. Uria, P. Ormazabal, A. Urbietta, O. Aizpurua, G. Maiz eta U. Gaztelumendi.	319

BERTSO-ALDI HAUTATUAK

KDan eta <http://bdb.bertsozale.com> Plazaz plaza

2012-01-08	OIARTZUN	J. Maia eta A. Sarriegi
2012-01-08	OIARTZUN	M. Lujanbio
2012-01-13	GETARIA	J. M. Irazu eta A. Martin
2012-01-15	DONOSTIA	J. Martin
2012-01-21	TOLOSA	A. Sarriegi
2012-01-22	ZEANURI	M. Lujanbio, A. Arzallus eta J. Maia
2012-01-28	DONOSTIA	I. Lazkano, A. Egaña eta B. Gaztelumendi
2012-01-28	DONOSTIA	P. Etxeberria eta J. Zelaieta
2012-02-17	MUTILOA	I. Zubeldia, A.M. Peñagarikano, I. Murua eta S. Lizaso
2012-02-25	LEZO	A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano, J. Maia eta A. Sarriegi
2012-03-08	USURBIL	U. Alberdi eta A. Agirreazaldegia
2012-03-09	MALLABIA	I. Urdangarin eta I. Zubeldia.
2012-03-23	OÑATI	U. Alberdi eta A. Martin
2012-04-01	ZEGAMA	A. Sarriegi eta I. Zubeldia.
2012-04-24	IRUÑEA	M. Lujanbio, U. Iturriaga, O. Estanga eta X. Paya.
2012-05-13	MALLABIA	U. Iturriaga
2012-05-19	URRETXU	U. Iturriaga eta I. Elortza
2012-06-01	LEKEITIO	J. Maia eta U. Iturriaga
2012-06-17	EREÑOTZU	M. Lujanbio.
2012-06-23	TOLOSA	A. Agirre
2012-07-07	LESAKA	A. Egaña eta X. Silveira.
2012-07-08	AMOROTO	U. Iturriaga, I. Elortza, S. Colina, X. Paya, S. Lizaso eta M. Amuriza
2012-07-08	AMOROTO	X. Paya

2012-07-11	GETXO (ALGORTA)	F. Paia eta X. Paya
2012-07-27	AIA	A. Arzallus eta S. Colina
2012-08-07	AIA	J. Soto
2012-08-13	LEITZA	A. Egaña.
2012-08-13	LEITZA	J. Soto eta M. Lujanbio
2012-08-13	DONOSTIA	A. Mendiluze eta A. Arzallus.
2012-08-14	BALIARRAIN	A. Egaña eta J. Maia.
2012-08-24	AMEZKETA	A. Estiballes eta A.M.
Peñagarikano		
2012-09-01	DONOSTIA	J.M. Irazu eta A. Mendiluze
2012-09-01	DONOSTIA	I. Elortza
2012-09-01	DONOSTIA	S. Lizaso eta M. Lujanbio
2012-09-13	BERMEO	A. Estiballes eta U. Alberdi
2012-09-22	AIZARNAZABAL	A.M. Peñagarikano
2012-09-30	IRURA	J. Maia eta S. Colina
2012-09-30	IRURA	A. Martín
2012-10-06	IURRETA	A. Arzallus eta M. Amuriza.
2012-10-06	IURRETA	J. Maia
2012-11-02	ERMUA	S. Colina eta I. Elortza
2012-11-02	ERMUA	U. Alberdi
2012-11-23	DONOSTIA	B. Gaztelumendi eta J. Soto.
2012-12-20	DONOSTIA	A. Egaña
2012-12-20	GASTEIZ	O. Perea
2012-12-23	AZPEITIA	A. Arzallus eta A. Egaña
2012-12-29	ORDIZIA	I. Lazkano

BAT-BATEKO SARIKETAK

2012-03-02	AZKOITIA	E. Artetxe
2012-03-23	AZPEITIA	O. Barroso
2012-05-05	ITSASU	M. Sarasua eta O. Murua
2012-09-07	ZARAUTZ	H. Casabal

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Aizpurua, O.	319(BI)
Agirre, A.	163(B), 218(BI)
Agirre, M.	199(B)
Agirreazaldegí, A.	105(BI)
Alberdi, U.	105(BI), 119(BI), 136(BI), 235(BI), 237(BI), 251(BI), 259(B)
Amuriza, M.	171(BI), 176(BI), 235(BI), 247(BI)
Apalategi, I.	71(BI), 220(BI)
Artetxe, E.	300(B)
Arzallus, A.	85(BI), 116(BI), 191(BI), 198(B), 208(BI), 247(BI), 261(B), 268(BI), 287(BI),
Barroso, O.	262(BI), 301(BI), 303(B)
Casabal, H.	318(PE)
Colina, S.	76(BI), 116(BI), 148(B), 155(BI), 171(BI), 187(B), 191(BI), 242(BI), 257(BI)
Egaña, A.	87(BI), 124(BI), 149(BI), 160(BI), 165(BI), 168(BI), 171(BI), 201(B), 212(BI), 215(BI), 281(B), 287(BI)
Elortza, I.	131(BI), 142(BI), 145(BI), 230(BI), 254(BI), 257(BI)
Enbeitza, On.	76(BI), 179(BI)
Estiballes, A.	223(BI), 237(BI), 280(B)
Etxeberria, P.	92(BI)
Estanga, O.	126(BI)
Galletbeitia, X.	311(BI)
Gaztelumendi, B.	71(BI), 79(B), 87(BI), 135(BI), 205(BI), 270(BI)
Gaztelumendi, U.	220(BI), 315(BI)
Goigana, M.	315(BI)
Gurrutxaga, I.	277(BI)
Ibarzabal, N.	314(B)
Igartzabal, E.	295(BI)
Irazu, J.M.	71(BI), 73(BI), 136(BI), 228(BI)
Iturriaga, U.	91(B), 126(BI), 131(BI), 140(B), 142(BI), 152(BI), 171(BI)
Iturriotz, A.	298(BI), 307(B)
Iturriotz, M.	298(BI)
Labaka, A.	165(BI)
Lazkano, I.	87(BI), 291(B)
Lekue, E.	273(BI)
Lizaso, S.	97(BI), 171(BI), 176(BI), 232(BI), 273(BI), 275(B)

Lujanbio, M.	...85(BI), 126(BI), 134(B), 158(B), 188(BI), 202(BI),215(BI), 218(BI), 232(BI), 254(BI), 268(BI), 277(BI)
Maia, J.	67(BI), 85(BI), 100(BI), 149(BI), 152(BI),212(BI), 242(BI), 249(B)
Mantxi	136(BI)
Martin, A.	71(BI), 73(BI), 113(BI), 119(BI), 155(BI), 245(B)
Martin, J.	79(BI), 82(B)
Mendiluze, A.	...95(B), 100(BI), 205(BI), 208(BI), 228(BI), 290(B)
Murua, I.	97(BI)
Murua, O.	308(BI)
Oiartzabal, J.	305(BI)
Ojanguren, G.	145(BI)
Olaizola, M.	311(BI)
Ormaetxea, U.	185(B)
Paia, F.	182(BI)
Paya, X.	126(BI), 171(BI), 175(B), 182(BI)
Peñagarikano, A.M.	97(BI), 100(BI), 160(BI), 188(BI),223(BI), 226(BI), 240(BI), 262(BI)
Perea, O.	285(B)
Rezola, A.	71(BI), 113(BI), 136(BI)
Sarasua, M.	308(BI)
Sarriegi, A.	67(BI), 71(BI), 83(B), 100(BI),122(BI), 124(BI), 226(BI)
Silveira, X.	168(BI)
Soto, J.	160(BI), 179(BI), 194(BI), 197(B),202(BI), 265(BI), 270(BI)
Txoperena, M.A.	295(BI)
Ugartetxea, B.	109(GL)
Urbietia, A.	301(BI)
Urdangarin, I.	109(GL)
Uria, J.	283(BI), 319(BI)
Viñaspre, I.	283(BI)
Zelaieta, J.	92(BI)
Zinkunegi, N.	305(BI)
Zubeldia, I.	97(BI), 108(B), 109(GL), 122(BI),194(BI), 251(BI), 265(BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, M.	Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Agirreazaladegi, A.	Ainhua Agirreazaladegi Rekondo	Elgeta
Aizpurua, O.	Oier Aizpurua Olaizola	Zarautz
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Apalategi, I.	Iñaki Apalategi Astigarraga	Beasain
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Artetxe, E.	Eneritz Artetxe Urresti	Gernika
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruña
Beretxinaga, E.	Eneko BeretxinagaLaskurain	Soraluze
Casabal, H.	Haritz Casabal Pikabea	Pasaia
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Estanga, O.	Oskar EstangaEzkurdia	Gaintza
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Etxeberria, P.	Patxi Etxeberria Zubiria	Orio
Gallettebeitia, X.	Xabat Gallettebeitia Abaroa	Lekeitio
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gaztelumendi, U.	Unai Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Goiogana, M.	Manu Goiogana Bengoetxea	Irun
Gurrutxaga, I.	Iñaki Gurrutxaga Zubimendi	Orio
Hirigarai, B.	Bixente Hirigarai	Baigorri
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Ibarzabal, N.	Nerea Ibarzabal Salegi	Markina-Xemein
Igartzabal, E.	Endika Igartzabal Murua	Gabiria
Igoa, X.	Xabier Igoa Eriz	Aramaio
Iguaran, B.	Beñat Iguaran Amondarain	Villabona

Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Iturriotz, A.	Amaia Iturriotz Etxaniz	Urretxu
Iturriotz, M.	Mikel Iturriotz Etxaniz	Urretxu
Karrika, A.	Aimar Karrika Iribarren	Auritz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayo	Lasarte
Labayen, J.	Jokin Labayen Iraeta	Arrasate
Lazkano, I.	Imanol Lazkano Uranga	Azpeitia
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxarri-Aranatz
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizarralde, A.	Ander Lizarralde Jimeno	Oiartzun
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Maiz, G.	Gorka Maiz Alustiza	Gabiria
Majuelo, I.	Irati Majuelo Itoiz	Iruñea
Mantxi	Iñigo Manzisidor Larrañaga	Zarautz
Mantxola, M.	Manex Mantxola Urrate	Urretxu
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendizabal, M.	Mikel Mendizabal	Itsasondo
Ministro	Haritz Etxeberria Bereziartua	Azpeitia
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Murua, O.	O. Murua Berra	Azkaine
Oiartzabal, J.	Josu Oiartzabal Zapiain	Erreterria
Ojanguren, G.	Gorka Ojanguren Torres	Urretxu
Olaizola, M.	Mikel Olaizola Oñaederra	Elgoibar
Ormaetxea, U.	Unai Ormaetxea Zenikazelaia	Zornotza
Ormazabal, Tx.	Txaber Ormazabal Villanueva	Arrigorriaga
Otamendi, A.	Andoni Otamendi Arsuaga	Lasarte
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz "Fredí"	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea De Mendiola	Gasteiz
Rezola, A.	Agin Rezola Laburu	Astigarraga

Sarasua, M.	Maddi Sarasua Laskarai	Itsasu
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Silveira, X.	Xabier Silveira Etxeberria	Lesaka
Solozabal, A.	Ander Solozabal Kortabarria	Gasteiz
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Sudupe, J.	Jokin Sudupe Mendizabal	Azkoitia
Torres, B.	Beñat Torres	Urretxu
Txoperena, M. A.	Maddi Ane Txoperena Iribarren	Hendaia
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Urbieto, A.	Aitor Urbieto Alkorta	Itziar
Urdangarin, I.	Iban Urdangarin Lardizabal	Ataun
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Uria, I.	Imanol Uria Albizuri	Getxo
Vidal, I.	Inazio Vidal Gurrutxaga	Getxo
Viñaspre, I.	Iñaki Viñaspre Simon	Gasteiz
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zinkunegi, N.	Nekane Zinkunegi Barandiaran	Errezil
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama

Bapatean 2012



Bapatean 2012